



uk

30. zenbakia / 2002 ekaina

munduari **begira**

Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. Gortizko hondartza, Asier Mentxaka.
- 6. ELKARTASUNA. *Fundes*o elkarte eta elkarrizketa: Carmen Tubia.
- 8. PHOTO-FINHITZ. Unai Elorriaga & Asier Mentxaka.
- 9. LEHEN ETA ORAIN. Algortako barrerak.
- 10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 18. Berango 22.

SAKONEAN

- 26. ALBUMA. Getxoko malakateak.
- 28. BERBETAN. Alex Angulo.
- 32. ERREPORTAJEA. Ibilaldia 02, maiatzak 26, Getxo.
- 38. GIZARTEA. Aktore bizimodu.

KULTURA

- 42. FOTOGRAFIA. Bruno Fernándezen argazkiak.
- 46. ZINEMA. Iñaki Elorriaga zinemazalearekin egon gara. Ilarak saihestu.
- 48. MUSIKA. Herriko musika taldeak. *Reston Sobres* musika taldea.
- 50. ELKARRIZKETA. Juan Mari Beltrán.
- 51. IRAKURGAIAK. Kirmen Uriberen poema bat..
- 52. SAREAN. Internet Iker Merchán-en eskutik.
- 54. KOMUNIKAZIOA. Txemi del Olmo; *The balde & Elhuyar* aldizkariak.

EUSKARAZ

- 56. URIBERTSOAN BARRENA. Amets Arzallusi elkarrizketa. Bertsoak eta balkoiak. Begi belarri eta Jagoba Paredaren bertsoak. Hau guztia, Algortako Bertsolari Eskolaren eskutik.
- 60. AKABUKO PUNTE. Urdulizko Joseba Uribegaz berbetan egon da Urtzi Iglesias. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.
- 62. EUSKARA. Berriak, elkarrizketa...

AMAITZEKO

- 64. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoren errezeta eta Itsaso Aranaren ardoari buruzko lezioa. Argi-ontzia, Algortako txoko bat. Karlos Argiñano, puntako sukaldaria elkarrizketatu dugu. Non jan? Adibidez, begetariano batean. Eta pintxoak? Morrongo tabernan.
- 70. HOROSKOPOA.
- 71. KOMIKIA. Gorka Vázquez.
- 72. BERRI HARRIGARRIAK. Txuleta jaleak 1975. Kepa Urkitza.
- 73. FLASH BACK. Getxo Futbol Taldea, 1937. Carlos Aiestaran.
- 74. AITORMENAK. Kontxu Odriozola.



42 Bruno Fernándezen argazkiak

Azalean

Bruno Fernández argazkilari eta bidaiariak munduan zehar hartu dituen argazkiak utzi dizkigu.



32 Ibilaldia 02



74 Kontxu Odriozola



7 Begoña Abaitua



28 Alex Angulo



26 Malakateak



57 Amets Arzallus



zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!!!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676

sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / aldizkaria@euskalnet.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBERIDEA: meztzi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO
e-mail: aldizkaria@euskalnet.net / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Javi Gonzalez del Herrero, Maitane Burusko, Itziar Bened. / Urtzi Iglesias
FOTOGRAFIA BURUA: Asier Mentxaka
TESTUEN OBRAZKETA: Joseba Butron
INFOGRAFIA: Guillermo Almagia
MARRAZKILARIA: Gorka V zquez
KOLABORATZAILEAK: Bittor Egurrola, Jokin de Pedro, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Unai Elorriaga, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merch n, Esti Ezkerra, Berbota eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarateak
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Berta Cachorro (94 491 13 37)
FILMAZIOA: ARGIA / INPRIMATEGIA: ESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: d576-6799
Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago
' BOLUNTZARRETA
Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen TOPAGUNE ko partaidea da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkaratearen dirulaguntza jasotzen du



Itxasgane Errea / Karitatea 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta



TOPAGUNEA



GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Leioako Udaleko Euskara Zerbitzua

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzua dirulaguntza jaso du



Erandioko Udala

Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jaso du



Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

Behar-beharrezkoak

ditugu zuen

dirulaguntza

BBK2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Ale honetan

Uda, oporrak eta bidaiatzeko garaia izaten da. Mundutik ibilia da **Bruno Fernández** Getxoko argazkilaria eta hainbat bazterretan hartu dituen argazki sorta ederra utzi digu. Fotografiarekin jarraituz, aipamen berezia merezi du ondoko orrialdean argitaratzen dugu-na. **Asier Mentxaka** aldizkari honetako argazkilariarena da eta Goriizeko udalak antola-tzen duen fotografia lehiaketan lehenengo saria jaso berri du bere mailan. Bestetik, azke-nean amasa hartuko dute San Nikolas ikastolakoek **Ibilaldia** eta gero. Han izan ginen. Ibilaldian **Begoña Abaitua** 60ko hamarkadaren hasieran ikastolako lehenengo andereño izan zena omendu zuten. Alemanian bizi da aspaldian eta egin digun bisitan berarekin egon nahi izan genuen. Ale honetako orrialdeetan aktore asko ere agertzen dira, esatera-ko, **Kontxu Odriozola** edo **Alex Angulo** antzezle handiei egindako elkarriketa. Inter-pretazioaren munduan dabiltzan gure **eskualdeko aktoreak** ere ezagutzera eman nahi izan ditugu, askoz gehiago badira ere, seirekin egon gara. **Malakateak** zer diren badakite ondo Getxo aldean, oraingoan eraikuntza bitxi hauek gure albuma bete dute. Askoz ere gauza gehiago aurkitu ahal izango duzu ale honetan: herrietako berriak eta pertsonaiak, Amets Arzallusek kontatu ziguna... Zure gustukoa izatea espero dugu.

UK-ko lantaldea


besteek esanak

- “Alferrik da makinak jartzea kondoia erabiltzen jakin ezean”
Eli Moreno (sexologoa)
- “Bizitzako gauza nabarmenak sumatzen ditugu baina ihes egiten digute interesgarrienek”
Francis Diez (*Doctor deseo* taldeko abeslaria)
- “Azken inkesten arabera, batez ere haur txikiak dituztenetatik %56k ongi ikusten dute euskaraz ikastea”
Mixel Etxeberry (Seaskako lehendakaria)
- “Euskara guztiona da, baita hitz egiten ez dutenena ere, eta ezin da patrimonializatu”
Gotzon Lobera (Bizkaiko Foru Aldundiko euskara arduraduna)
- “Teknologia berriek eraldaketa izugarria ekarriko dute, eta denbora-espazioa desagertu egingo da”
Iñaki Goirizelaia (Ingeniarien Eskolako katedraduna)
- “Internet ozeano bat da non gaur egungo gazteak itotzen diren”
Harold Bloom (zientzialaria)

OKERRAK ZUZENDUZ (UK 29)

Aurreko alean Erandioko gure irakurleak ondo zigortu genituen. Izan ere, 20. orrialdean argitaratzen genuen erreportajen dantza taldearen izena ez genuen zuzen idatzi. Egiazko izena ***Goi-alde*** da eta ***ez Goiz-alde*** guk idatzi genuen moduan. Erreportaje berean, argazki oinean, **Sorkunde Goikuria** taldeko kideari abizena aldatu genion eta Guraia bataiatu. Bestetik, eta baita Erandioko orrialdetan ere (21.enean), Akarlandako aterpetxeaz ari ginenean, Akerlanda idatzi genuen guk, izen zuzena, jakina, **Akarlanda** da.

[irudia]



GORLIZKO HONDARTZA, 2002
(Argazki honek Goriizko udalak antolatzen duen fotografia lehiaketan lehenengo saria lortu du aurten bere mailan)

Solidarioak

Carmen Tubia >
Gizatiar elkarteak kidea



Gizatiar Erromo-Areetako emakumezkoen elkarte soziokulturala da. Elkarateak 1.200 bazkide ditu.

—Zein lan mota egiten duzue?
—Arlo ezberdinetan lan egiten dugu. Elkartea bost batzordetan dago banatuta eta talde bakoitzak helburu zehatz bat dauka; osasuna, kultura... Gurea, 3. munduko batzordeak, herrialde pobreekiko elkartasuna bideratzeko ardura dauka.
—Zenbat kide zarete?
—1999an 700 kide ginen eta gaur egun 1.200 emakumek osatzen dugu elkartea.
—Zein lan mota egiten duzue?
—Denetarik; 3. munduko batzordeak antolatzen dituen ekintzen artean aipagarriena Erromoko Kultur Etxean urtero egiten dugun merkatua da. Sei urte daramatzagu ekintza hau antolatzen. Iaz 600.000 pezeta lortu genituen.

—Zertarako erabiltzen da dirua?
—Helburua ezberdina da urtero. Aurten, El Salvadorreko Chalatenango de las Vueltas herriko gazte batzuei ikasketak ordaintzeko erabiliko dugu. Orain dela urte bi 18 gazte apadrinatu genituen eta ikasten jarraitzen duten zortzietan unibertsitatea ordaintzen saiatuko gara.

Harremanetarako: 94 463 50 12, Marisa Remón

Erakundea Fundeso
Herrialde azpigaratuen alde lanean



Fundesok Indian abian jarritako esne kooperatiba bat

Fundesoko Gobernu Kanpoko erakundea 1995ean sortu zen eta orain dela bost urte Euskal Herriko ordezkari zabaldu zuen Getxon. Fundeso izenak “Fundación de Desarrollo Sostenido” esan nahi du. Gaur egun GKE honek 120 kolaboratzaile baino gehiago ditu Euskadin eta kopuru hau gora doa urtez urte. Elixabet Larauogoitia, Fundesoko lankidetzaren eta garapen sailleko arduradunak, GKEk egiten duen lana azaldu zigun. “Herrialde azpigaratuetan lan egi-

ten dugu, garapen egitarauak sortzen eta martxan jartzen hango GKEekin elkarlanean. Batez ere, Hegomerikan lan egiten dugun arren, azkeneko urteotan Indian ere bagabiltza beharrean”. Fundesokoen ustez, etxetik, Euskal Herritik, herrialde behartsuenen alde asko egin daiteke. Beraiekin lan egin nahi izanez gero, euren bulegora jo dezake, beso zabalik hartuko zaituztete. m

Andrés Cortina 2, 3. bulegoa, Algorta
94 430 44 05 / www.fundesoko.org

300.000 euro herrialde behartsuen garapena sustatzeko Getxon

Udalak lankidetasun 12 proiektu egiteko dirulaguntzak emateaz gain, larrialdietako laguntza partida bi eman zituen iaz eta gizarte kontzientziazteko lau proiektu subentzionatu zituen. Guztira 300.000 erabili ziren iaz herri behartsuen alde. Dagoeneko aurtengo dirulaguntzak eskatzeko epea zabaldua dago. Eskararak datorren ekainaren 15 arte aurkeztu ahal izango dira. Lehentasuna emango zaie herriko taldeek aurkeztutako proiektuei.

Erandio Goikoa, Sierra Leonako umeekin

Erandio Goikoko Eskulan Taldeak Sierra Leonako umeekin laguntzeko ekintza ezberdinak egin zituen joan den maiatzaren 25ean. Besteak beste, merkatua (urtean zehar egindako eskulanak saldu zituzten), ume jolasak, herri bazkaria eta gaudantza egon ziren eta Amaia Bilbao, taldeko lehendakariaren esanetan, “Partehartzea inoiz baino altuagoa izan zen”. Erandio Goikoko Eskulan Taldeak zazpi urte daramatza hirugarren munduko herriei laguntzen. Eskuekin trebea ez denak laguntzeko beste hainbat modu ditu. “Taldekook umeak apadrinatu ditugu eta urtean zehar ekintza gehiago egiteko asmoa dugu. Guztion laguntza behar beharrezkoa da”, adierazi zigun Amaiak. / Harremanetarako: Amaia Bilbao 94 453 25 59

Begoña Abaitua > San Nikolas Ikastolako lehenengo irakaslea

Andereño bat Alemanian

Begoña Abaituak 61 urte ditu eta izatez, Bilbokoa da, azkeneko 39 urteetan Alemanian bizi izan den arren. Kantu ikasketak egitera joan zen hara eta bai maitemindu ere. Ezkondu eta han lotu zen bizitzen. Aurten Ibilaldiak merezitako omenaldia egin dio. Izan ere, Begoña Abaitua San Nikolas Ikastolako lehenengo irakaslea izan zen 60ko hamarkadan, ikastola sortu berria zenean.

—Zer dela eta hasi zinen San Nikolas Ikastolan eskolak ematen?
—Garai hartan ni Txinparta antzerki taldean nengela eta kide batek Algortan andereño baten bila zebiltzala esan zidan. Ni ez nintzen irakasle baina euskaraz banekien. Hara aurkeztu eta hartu ninduten.
—Irakasle bakarra zinen, ezta?
—Bai. Garai hartan ez zegoen ezta ikastolarik ere. Hile bakoitzean ume baten gurasoen etxean ematen genituen eskolak. Hiruzpalau urteko bederatzi ume baino ez nituen. Hori bai; dena euskaraz egiten genuen.

“Kalean ez da beti euskara entzuten eta hori da lortu egin behar duguna: euskara kalera ateratzea”

—Gero Alemaniara alde egin zenuen eta han eman dituzu azkeneko 39 urte hauek...
—Ibañez de Retolaza kantua saria irabazi eta Galesera joan nintzen. Han beste sari bat eskuratu nuen eta hona bueltatu nintzen Alemaniara joatea, apur bat gehiago ikastera, ona izango zela pentsatu nuen. Hara joan eta segituan maitemindu nintzen, eta gero, ezkondu. Horrela izan zen, bai. Alemanian Babiera irratian eta abesbatza batean lan egin dut oraintsu jubilatu naizen arte.
—Herriminik sentitzen al da?
—Handia, oso handia, baina senarra eta biok sarritan etortzen gara; urtero hiru lau aldiz. Oraingoan berriz, bakarrik etorri naiz. Senarrarekin etortzen naizenean, berak euskaraz ez dakienez, hemengo jendeak gaztelaniaz hitz egiten digu eta asko galdu dut.



“Ibilaldia hunkigarria izan da, ez dut sekula ahaztuko”

Jubilatu nintzenean egin nuen lehenengo gauza Forura etorri eta AEK-ko barnetegian izena ematea izan zen. Oso pozik egon nintzen eta lagun asko egin nituen. Aurten ez naiz hara joango, baina egun batzuk pasatuko ditut Mutrikun euskaldunen artean.
—Aurtengoa zure lehenengo Ibilaldia izan da. Zer iruditu zaizu?
—Zoragarria! Ezin nuen begien aurrean nuena sinestu. Jai handia zela entzuna nuen baina hori gauza bat da eta beste bat, ikustea.
—San Nikolas ikastolako omenaldia egin zizuten. Zer sentitzen da horrelakoetan?
—Zinta mozteko aukera eman zidaten eta, zer esango dizut, ba! Hunkigarria izan zen.

Ez dut sekula ahaztuko. Poz-pozik nago.
—Euskal Herrira itzuli zara berriro. Zelan aurkitu duzu zure herria?
—Polita dago, baina oso handia. Ia ez dut ezer ezagutzen.
—Eta zelan ikusten duzu euskararen egoera gaur egun?
—Euskararen alde asko egin dela uste dut baina kalean ez da beti euskara entzuten eta hori da lortu behar duguna, euskara kalera ateratzea.
—Etxera bueltatzeko asmorik bai?
—Asmoa bai, baina oraindik senarra lanean dabil. Jubilatzen denean, orduan bai, hona etorriko gara bizitzera. m

Abioneta-sindromea



AIXERROTA, 2002KO UDABERRIA

“Sugandilekiko inbidia handia dago”

Abioi batean sartzen den pertsona ez da pertsona normala. Esan nahi dut oso ausarta dela edo ez daukala zuztarrik inondik inora. Eta ausarta dena ez da normala eta zuztarrik ez daukana ez da normala. Izan ere, hegan egiten duten sugandilak dira abioiak. Eta sugandilak ez dira fidatzekoak. Edo beharbada bai. Sugandilei buruzko liburu asko irakurri izan ditut eta batzuetan esaten da sugandilak ez direla fidatzeko modukoak eta beste batzuetan esaten da fidatzekoak direla, eta gizakiaren zein beste animalia askoren lagun handiak direla.

Ni, badaezpada, sekula ez naiz sartuko sugandila batean Kanadara joateko edo Indiara joateko. Izan ere, baten batek esan badu ez direla fidatzekoak, zerbait egongo da hor. Edo inbidiaz esango zuten: sugandilekiko inbidia handia dago-eta.

Ez naiz sartuko, hala ere, ez sugandila batean, ez abioi batean, ez helikoptero batean. Kontua da, ordea, hegan egitea gustatzen zaidala. Gustatzen zaizkit, bestetik, akrobaziak egiten dituzten abionetak. Baina beti pentsatu izan dut ezin izango

dudala hori disfrutatu. Gonzalo Torrente Ballesterren *La sagafuga de J.B.* liburua irakurri nuen arte.

Liburu horretan hiria bera da hegan hasten dena. Hiriaren sustraiak lurretik banatu eta zerurantz egiten zuen. Handik gutxira jaisten zen berriro, inongo galera edo hondamenik gabe. Orduan okurritu zitzaidan horixe nahi nuela nik; Algorta hegalaria nahi nuen nik.

Ez zen, baina, erraza izan. Dei asko egin behar izan nituen. Deitu nuen hara eta hona. Ordaindu ere asko ordaindu nuen. Baina lortu egin nuen azkenean. Hamar segundoko gauza izan zen: zerurantz egin zuen Algortak, hamar segundo egon zen goian eta berriro jaitsi zen. Ondo ikusten da argazkian. Serantes behe-behean geratzen ari da eta hodeiak daude Galea azpian. Ez zen ia inor enteratu. Goizeko seietan izan zen, igande batean. Ni enteratu nintzen, ordea. Eta eguzkia hartzen joan zen eta argazkian agertzen den pertsona hori ere bai. Eta NASAn dago argazkian agertzen den pertsona hori orain. Hainbeste gustatu zitzaion. ^m



[lehen]



[orain]

Iraganez doa denbora* beti / ALGORTAKO BARRERAK

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

Euskara biziberritzeko plana

Getxoko udalak Eusko Jaurlaritzarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin **elkarlanean** Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) **abian** jarriko du herrian

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Euskararen Aholku Batzordearekin elkarlanean egina, euskararen normalizaziorako plan hau euskaraz bizi nahi duten herritarrei zuzenduta dago eta gure hizkuntzaren berreskurapen osoa lortzea du helburu nagusi. Orain Getxon aplikatu nahi da. Ildo nagusiak Igeretxan aurkeztu zituzten agintariak herriko eragileen aurrean.

Getxoko udalak plan hau garatzeko konpromisoa hartu du bere gain eta uda alderako egina eduki gura du. Horretarako herriko elkarte, talde eta herritarrei planari buruzko iritzia eskatuko zaie. Egin eta gero, udalbatzak onartu beharko du eta gero aplikatzen hasiko da. Proiektuaren helburu eta ildo nagusien aurkezpena maiatzaren 18an egin zen Ereagako Igeretxe hotelean. Hara euskal kulturarekin loturak dituzten lagun ugari, kolore guztietako politikariak, hezkuntzako pertsonak eta herriko taldeetako ordezkariak bildu ziren egitasmoaren berri lehenengo eskutik izateko.

Zertarako EBPN?
Emandako prentsurrekoan azaldu zenez, datozen hiru-lau urteetan garatuko den plan honek helburu nagusi bi ditu: alde batetik, euskararen berreskurapen osoa lortzea; eta, bestetik, gure hizkuntza erabiltzeko aukerak ematea, euskaren aldeko urratsak areagotuz. Helburu biak bakar batean laburtu daitezke: herria euskalduntzea. Plana baliatuz, euskararen belaunaldiz belaunaldizko transmisioa ere ziurtatu nahi da eta belaunaldi berrieta-



Goian, plana aurkezteko agintariak Igeretxan emandako prentsurrekoa; behean, ondorengo luntxa.

ko euskaldunentzat euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolatik beste eremu batzuetara zabaltzea da erronka. Azkenik, euskara hizkuntza erraza eta eroso egitea ere bada planaren helburu estrategikoetako bat. ^m

Helburu nagusiak

Herrian

- Hiztunek euskara ikastea edota duten gaitasuna sendotzea.
- Harreman-sare euskaldunak egituratzen laguntzea.
- Euskarazko produktuak eta zerbitzuak zein horien gaineko informazio zehatza bideratzea.

Udal barruan

- Herri-Administrazioetan euskararen erabilera garatzea.
- Euskara zerbitzua sendotzea.



Aitite eta amamen eguna

200 lagun elkartu ziren **egunpasa** egiteko



Oso giro ona eta alaia egon zen bazkarian

Ondo merezitako omenaldia jaso zuten Getxoko aitite eta amamek ekainaren 2an Andra Mari ikastetxean. Ospakizun hau urtero antolatzen dute Andra Mari eliza inguruko lagunek, beti ekainaren lehenengo domekan. Lehenengo meza entzun zuten bertan.

Bazkaldu baino lehenago Itxas-Argiakoelek dantza erakustaldi ederra eskaini zieten eta bazkalostean, asko izan ziren soltean zein lotuta euren gorputzak orkestraren doinuaren erritmora astintzen ausartu zirenak. Urte askotarako! ^m

UDAN KIROL ABENTURA, IKASTAROAK...

Kirol abentura eginez uda on bat goatzeko, Getxoko Turismo bulegoak eskaintza zabala prestatu du bai getxoztarrentzat eta bai udan gure herrira hurbilduko diren turistentzat ere. Antolatu dituzten ikastaro eta irteeren artean, aipatzekoak dira Uribe Kostan egin daitezkeen hipika, eskalada, urpekaritza, parapentea, piraguismoa, surfa edo bela ikastaroak. Gure eskualdetik kanpo besteak beste espeleologia, txangoak edota trekkinga egingo ahal izango dira. Informazio gehiago jasotzeko edota erreserbak egiteko, 94 491 08 00 telefonora deitu edo infoturismo@getxo.net helbidera idatzi.

NUDISMOA ARAUTU NAHI ZUEN AGINDUA ATZERA BOTA DU GETXOKO UDALBATZAK

Getxoko udalak iazko udan nudismoa arautzeko plazaratu zen agindua balio barik utzi du udalbatzak maiatzeko azken plenoan. Oposizio osoa eta udal gobernuan dauden EAKo zinegotziek arau haren aurka bozkatu zuten. Azken hauek arauaren alde egon arren, euren alderdiak kontra bozkatzera behartu zituen. Ika-mika handia eta zer esan ugari eragin zituen dekretu horrek, nudismoa leku zehatzetara mugatu nahi zuelako. Orain agindua ezerezean geratu denean, nudismoaren praktikak arautu barik jarraituko du eta, hortaz, ezin izango zaie nudistei isunik jarri. Getxoko alkateak, bere aldetik etorkizunearan arazoak sortuko direlakoan nudismoa arautzea beharrezkoa izango dela adierazi zuen.



Nudista bi Barinatxe hondartzan

▲▲▲▲▲

LAIKAK

Taberna

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94.6760328

▲

▲▲▲▲▲

San Pedro

jai zoriontsuak
sopeloztar guztioi!!!!

▲▲▲▲▲

Txakur arriskutsuak

Udalak **baldintza zorrotzak** ezarri ditu txakur hauek eduki ahal izateko

Txakur arriskutsuen jabeek ekainaren 28ra arte izango dute aurrerantzean beharko duten lizentzia berezia eskatzeko epea. Lizentzia hau udaletxean eta Herritarren Arretarako Bulegoetan eskatu daiteke. Getxon 150 baino gehiago dira arriskutsutzat jotako arrazako txakurrak, baina hauez gain izaera oldarkorra azaldu dutenek ere lizentzia berezi hori eduki beharko dute. Txakur hauek leku publikoetan daudenean, jabeak lizentzia aldean eraman beharko du beti. Gainera, txakur hauek muturrekoa ipinita eta uhala eraman beharko dute. Uhalak ezin izango du metro bitik gorako luzerarik eduki. Gainera, jabeek beste arau batzuk bete beharko dituzte, esaterako, txakurra galdu edo lapurtuz gero, horren berri eman beharko dute Udaleko animalia arriskutsuen erregistroan. Lege berri honen nondik-norakoak argitzeko, Getxoko udalak informazio orriak kaleratu ditu. ^m



Rottweiler kumetxo, Sopelako txakurtegian.



Gazteak Burdinola gaztetexearen aurrean, hustutzen saiatu ziren egunean

Algortako gaztetxea hustutzeko agindua betetzen saiatu ziren

Herriko gazte batzuk Uribarri kalean okupatu duten gaztetxetik kanporatzen saiatu zen Udaltzaingoa maiatzaren 29an, goizean. Eraikuntzaren jabea den Erosten enpresak (bertan etxeak eraikiko ditu) Getxoko epaitegian salaketa jarri ondoren, udala agindua betearazten saiatu da. Goizeko 9:00etan Getxoko Udaltzaingoa gaztetxean agertu zen eraikina hustutzeko aginduarekin. Eraikinean gazte batzuk zeuden, baina denbora gutxian gehiago agertu eta teilaturan igo ziren. Arratsaldeko ordu bietan 30

gaztek teilatuan jarraitzen zuten (bertan paella bat prestatu zuten bazkaltzeko), behean udaltzainak zain zituzten. Ordu pare bat lehenago udaleko langileek argia kendu eta gaztetxeko atearak itxi zituzten baina EHko zinegotzi batek salaketa aurkeztu zuen eraikuntzaren barruan jendea zegoelako eta arratsaldeko zazpitan berriro ireki behar izan ziren gaztetxeko atearak. Gero, gazteek manifestazioa egin zuten gertatutakoa salatzen. Lerro hauek idaztean gaztetxeak zabalik darrai. ^m



Urtero bezala Gorpuzti eguna ospatu zuten Algortako Portu Zaharrean. Eguraldia lagun, lagun asko bildu zen meza eta Biotz Alai abesbatzaren kantak entzutera, eta nola ez, sardina erreak jatera.

Erromoko Ziztu Bizian eskaut taldea hamargarren urteurrena ospatzen dabil



Adiskidetasuna, tolerantzia eta beste balore batzuk lantzen dituzte Ziztu Bizian eskaut taldekoek

Urteurrena ospatzeko ekintza ugari antolatu zituzten eskautekoak Erromoko Santa Eugenia plazan. Besteak beste, lantegiak, umeentzako jolasak, txokolatada edo eta gaztelu puzgarriak. *Ziztu Bizian* eskautak aisialdi taldea da, baina baditu bere ezaugarri propioak. Izan ere, Eva Rubio, arduradunak azaldu zigun bezala *“Irteerak*

eta abar egiteaz gain, balore batzuk lantzen saiatzen gara: adiskidetasuna, beziketa, tolerantzia, fedea...”. Gaur egun 12 begiralek eta 60 gaztek osatzen dute talde hau. Larunbatero San José Obrero elizan elkartzen dira irteerak, kanpaketak eta bestelako ekintzak antolatzeko. ^m

Harremanetarako: 696 83 22 28 Eva Rubio.

Kirik Ereagako hondartza txapelketen antolatzaileak

Kirik enpresa 1991ean sortu zuen lagun talde batek. Izena 2000 hiztegitik atera zuten eta "Ume jolasa" edo "Aski" esan nahi du. Ilusio handiarekin, baina baliabide gutxiarekin ari ziren eta enpresa ezagutarazteak lan handia eman zien Kirik enpresaren jabe diren Aitor Ostaikoetxea, Jon Rodríguez, Eli Barreira eta Jose Mari Rodríguezi. Hasiera batean eskolaz kanpoko ekintzak antolatzen zituzten baina laster hasi ziren eskaintza zabaltzen; kirol abentura (espeleologia, piraguismoa...), txangoak, umeentzako parkeak... Ereagako hondartza txapelketak ere orain hamaika urtetik hona antolatzen dituzte. Aurten 600 pertsonak hartu dute parte jokatu diren sokatira, futbol eta boleibol 250 partiduetan. ^m

Harremanetarako: 94 491 17 46 Kirik



Klonen erasoa Leioan

Star Wars sagako azken filma pil-pilean dago. **Jarraitzailerik** ez zaio falta, ezta gutxiagorik ere. **Julen Zaballa** leioztarra galaxia horretan sartua dago, bere burua **“fan pasibo”** bezala definitzen du.

—Kontaiguzu, nola barneratu zinen fikziozko *Star Wars* mundu horretan?

—Hamahiru urte nituenean pelikula ikusi nuen. Nire anaiari filmaren musika grabatu zioten. Musika entzunez filmari zentzua bilatzen saiatu nintzen, eta azkenean erabat harrapatu ninduen. Hamasei urterekin, *IV. Episodioa* ikusten nuen bakoitzean beste biak ikusten nituen; astero hiru filmak ikusten nituen. Bere lanek frogatzen duten moduan John Williams musikaria maisua da: *Spiderman*, *ET*, *Jurassic Park*... Badaki irudia eta musika uztartzen eta horien bidez sentsazioak eragiten.

—Zer deritzozu *Klonen Erasoa*-ri?

—Oso ona da. Lehengoan ikusi nuen eta bihar berriro joango naiz. *I Episodioa* lau bider ikusi nuen. Ikusten den lehen aldian *txundituta* geratzen da bat! Lehenengo filma berriz estrenatu zutenean, 1997an, amaitzean konturatu nintzen pelikula osoa tentsioan pasatu nuela, gehiegizkoa izan zen hura! Gainontzekoetan ez zait horrelakorik gertatu. Uste dut hoberena *Inperioaren Kontraerasoa* dela, gidoi arazorik ez duelako. —Zer indar motak erakartzen zaitu urrutiko galaxia horretara?

—Ni zinemara efektu bereziak ikustera joaten naiz, zientzia fikziozko pelikulak. Film horiek badute atzean ikuspuntu mistiko bat, laguntasuna edo indarra bezalako ideien inguruan eginak daudelako. Argumentua gutxieneko kontua da, oso sinplea baita: protagonista, printzesa eta gaizkilea. Baina George Lucasek mitologiako ezaugarriak sartu zituen.

—Baina hau guztia ez al da moda hutsa edota marketing kanpaina eraginkorra?

—Bai. AEBetan gertatu zen bezala azke-



Julen Zaballa bere bildumako ale batzuekin

nengo film hau estreinatu aurretik George Lucasek atara zituen jostailu, arropa, liburu eta antzekoekin pelikularen aurrekontua ordaindua zuen. Lucas oso ekonomilari ona da eta badaki fan guztiok zerbait erosiko diogula. Britainia Handian mundu hau erlijio izateko prozesuan omen dago.

“Star Wars filmek badute euren atzean ikuspuntu mistiko bat”

—Kontsumismo horrek harrapatu al zaitu?

—Nik jeneralean komikiak erosten ditut, hilean bost edo sei. Bi kamiseta, txanoa, panpinak, jokoak... baditut. Baina, agian, azpimagarriena *Star Wars Entziklopedia* izango da. Baina nire ondasun baliagarriena lagun batek oparitu zidan komiki zahar bat


da, egun 1.800 euro inguruko balioa du.

—Zein da zure pertsonaia kutuna?

—Ez zaizkit pertsonaia nagusiak gustatzen; bigarren planoan geratzen diren horiek, aldiz, bai.

—Zure burua 50 urterekin fan sutsua izaten ikusten duzu?

—Jakina! m



Ikastaroen artean, eskalada ikasteko aukera ere egongo da

Uda 2002 kanpaina jadanik abian jarri du udalak

Aisialdirako garaia dator uda hastearrekin batera. Horregatik hainbat ekimen antolatu dira euskara hutsean haur, gazte zein helduen gozamenerako. Uztail osoan zehar garatuko da kanpaina, hiru ataletan egituratua. Lehendabizikoa kirol eta kulturari begira ekintza orokorrak antolatu dira, besteak beste, hipika, esgrima, eskalada eta arrantza. Bigarren etapan, aldiz, ikastaroei eman zaie nagusitasuna, adin

guztiak kontuan harturik. Hauen artean leioztarrentzat yoga, surfa zein aerobica dira aipagarrienak. Eta, azkenik, hirugarren etapan lehiaketak dauzkagu, kasu honetan gazte eta helduentzat. Aurten futbolsala edota frontenis txapelketak izango dituzte jolasgai. Iaz, 300 lagun inguruk parte hartu zuten kanpainen eta aurten jende gehiagok parte hartzea espero dute antolatzaileek. m

UDONDO GAZTETXEA ERAKUSKETA ETA ELKARTRUKEAREN GUNEA IZAN ZEN

Ekainaren 1ean Udondo Gaztetxean Euskal Herriko 1. Material Politikoa *Erakusketa eta Elkarturkea* izeneko jaurdunaldia ospatu zen. Egun osoan zehar ekintza ezberdinak antolatu zituzten, gazteen parte hartzea suspertzeko asmoarekin. Materialaren artean pegatinak, txiskeroak, giltzatakoak, egutegiak, kartelak eta beste hainbat zeuden. Bazkal ostean, *Propaganda politikoaren arazo legalak* lelopeko hitzaldiaz gozatzeko parada izan zuten. Jaia gauera arte luzatu zen kontzertu batekin. Eta nekaturik zeudenentzat lo egiteko tokia ere eskaini zuen Udondoko Gaztetxeak.

Gaztetxeak bazkaltzen



EGITARAUA
SAN JUANAK 2002

Ekainak 20 OSTEGUNA

• **Txupinazoa** eta laguntaldean jaitsiera 20:00 udaletxean. Gaiteroak eta Itxartu Trikitxa taldeekin girotzea. **Asier Bilbao trasformista** Artaza kafetegian, 22:00. Gauean berbenak, **Bizargorri** Ikea Barrin eta **Luhartz** txosnetan.

Ekainak 21 OSTIRALA

Txirrindulari neoprofesionalean (sub 23) lasterketa, 10:00. Ikaztegi zaharrean, **umeentzako parkea** zabalduko da, 12:00. Sokatira lehiaketa, 16:30. **Txan magoa** Euskal Etxeen plazan, 20:30. Berbena **Lisker** taldearekin Ikea Barrin. Txosnetan, **Ken 7** eta herriko talde bat.

Ekainak 22 LARUNBATA

Txirrindulari neoprofesionalean (sub 23) lasterketa, 10:00. Ikaztegi zaharrean, **umeentzako parkea** zabalduko da, 12:00. Sokatira lehiaketa, 16:30. **Elvi magoa** Euskal Etxeen plazan, 20:00. Txosnetan **diskoberbena** eta **Geiser** taldea J. M. Barandiaranen.

Ekainak 23 IGANDEA

Sagardo eta untxi eguna Boulevard-ean, leku berean **Castellers**-ak, 13:00. Futbito txapelketaren finalak Sakonetan, 19:30. Antortxak Boulevardean eta **San Juan Sua** udaletxean, 23:00. **Etzakit** txosnetan eta **Urgabe** Ikea Barrin.

Ekainak 24 ASTELEHENA (UMEEN EGUNA)

Elkartasun jaia udaletxean, 11:00. Jantzi merkeen lehiaketa, 19:00. Umeentzako berbena Euskal Etxeen plazan, 20:00. **Azken traka eta jaien amaiera** udaletxean, 22:00.

** Egitarua zabalagoa da. Hau laburpen bat baino ez da*

AGENDA

Mendi irteerak

Ekainak 15-16: **Guarramako mendizerra**.
Uztailak 7: **Adartza**. 1.250 m.
Uztailak 20-21: **Sallent de Gallego-Panticosa**.

Zineforuma

Ekainak 18, zikloaren amaiera eta baita kurtsoarena ere. Irailean berriro hasiko da. Oscar Santosen **Torre** eta Amenabaren **Los otros** filmak.



Restituto Fernández Leioako tabernariak 1920 aldera Ondizko jaietan jarritako txosna; duela bi urteko jaiak

San Juanak oroimenean
bidaia laburra iraganera

Gure herriko jaiak **laster** dira eta historian **atzera** egin nahi izan dugu festen **erroa** ezagutzeko asmoz

36ko gerra baino lehen Leioako jaiak auzoz auzo ospatzen ziren, maiatza eta iraila bitartean. Gero eta ekintza gehiago antolatzen hasi ziren, deigarriago eginez kanpoko zein bertoko herritarrentzat. Izan ere, orduan ere iragarkiak egiten ziren beste herrietako jendea erakartzeko, esaterako, *El Noticiero Bilbaino* egunkarian. Eskuko programak ere banatzen ziren. Pasadizo moduan aipagarria da 1903. urtean Lamiako eta Ondizko jaietara hurbilduko zen jendetza aurrikusirik, Enrique de Libano orduko alkateak honako eskaera egin zion Bilboko eta Areeta bitarteko trenbideko zuzendariari: *“Goizeko eta arratsaldeko trenak geldidatezela, masedez, Leioako geltokian”*.

Gure herriko jairik garrantzitsuenak diren San Juanetan, 1910eko hamarkada erdialdean, abesbatza batek mezan kantatzen zuen, organoak lagunduta. 20ko hamarkadaren bukaeran, ospakizun hau hu-

rrengo igandean Elexalde auzoan errepikatzen zuten, eta Leioako Kirol Elkartek kirol ekitaldi ugari antolatzen zituen, herritarren gozamenerako. Egun ezagutzen ditugun txosnek iraganean dute sustraia. Izan ere, 1926. urtetik aurrera Leioako tabernariak jai denboran txosnak ipintzen hasi ziren. Gaur egun jende askoren topagune bilakatu dira. Historiak aurrera egin du eta bai jaiak ere. m



Maskarada

ospatu zuten **Lamiakon** maiatzaren 31n



Urtero legeez, Lamiako auzoak ospatzen dituen San Maximo jaien egitarauaren barruan, maskarada antzetzuzuten auzoko herritarrek. Tradizioari jarraituz, ostiralean egin zen maskarada. Izan ere, ostirala zeruari eskainia zegoen antzina eta ilargiarekin ere bazuen loturarik egun honek. Giro bikaina egon zen antzezpenean. Hona hemen arratsaldean maskaradari hasiera eman zion kalejirako argazki batzuk. m





BILBOMICRO

“1982az geroztik soluzio informatikoak eskaintzen”

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO / Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoak: 4230213

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAIE

RRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

Astrabudua Futbol Taldea

Benjaminetan hasi eta bigarren erregionalera arteko maila guztietako **taldeak** biltzen dira Astrabuduako Futbol Taldean. Guztira 140 bat kirolari eta 7 talde, **ilusio berri** bat gogoan: futbol zelai berria.


Ekinaren ekinez lortu dute futbol zelai berria eraikitzeko proiektua udalak bere egitea, eta inguruan zundaketak egiten ari diren makinak ikusita, urteotan izan dituzten instalazio eskasak behin betiko atzean geratuko diren segurtasuna eta poza nabari zaie taldeko kideei. Eta taldea diogunean Astrabuduko herritar multzo handi batez ari gara.

Talde berria 1990ean sortu bazen ere, Astrabudun bazen lehendik San Lorenzo Futbol Eskola, urteetan gaztetxoak futbolera prestatu zituen, baina ez zegoen talde federaturik. Handik atera ziren Somavilla, eta estatuko ligan hirugarren zein bigarren mailako taldeetan jokatu duten beste jokalaririk ez.

Gaur egun, klubak talde federatuak ditu eta hor ari dira, 7 urtetik hasi eta 30 urtera arteko lagunak hautatu artean entrenatzen eta jokatzeko. Asteazken orduz entrenatzen dira gehienak, eta txikitxoek hiru orduko entrenamendua dute.

Jon Velascok dioenez, entrenatzaile zein koordinatzaileek sarritan hezitzaile lanak egin behar izaten dituzte umeekin: lehenengo eta behin umeei umek izan behar dutela, ondo pasatu behar dutela eta ez dietela lehiakortasun basatirik erakutsi nahi azpimarratu digu. Alde horretatik gustuko lana dela eta pozik ari direla. Baina ez daude horren pozik futbol zelaiak txakur kaka ugariekin.

Txakurren gorotzak
Jendeak txakurrak futbol zelaira eramaten dituzte egiteko, eta ohikoa da kirol instalazioetan kaka mokordoak non-



Argazkian, Asier Unibaso jokalaria zuzendaritza batzordeko kideekin

nahi aurkitzea; alferrik izan da kartelak jarzea, alferrik jendea ohartaraztea, eta zuzendaritzako kideen lanetarikoa bat horixe da: mutilak jokatzera doazenerako zelai ingurua garbitzea.

Oraindik proiektua besterik ez den futbol zelai berria belar artifizialez jantzita eta txakurrak ez sartzeko moduan itxita egongo denez, lan gutxiago izango dute. Izan ere, ez da lan makala 140 jokalariren jarduna antolatzea, aldagelak txukun izatea, jokalaririk arropak prestatzea, zelaia ahalik eta ondoen jagoa, fitxak eta abar eguneratzea...

Rafael Guijarro lehendakariak lau bat ordu egiten dituzte arratsaldero klubeko zereginetan eta Jon, Pablo, Roberto, Jorge, Julian, Alfredo eta besteak ere hamaikak ordu sartzen dute. Horrela mantentzen da auzoan gazteek kirol jarduerak interesgarri bat eskaintzen dien taldea.

Neska taldeak sortzea da aurrera begira duten beste erronka bat. Orain arteko instalazioetan ez dute baldintza egokirik izan, baina badihala neskak futboleko aritzeko prest daudenak eta instalazio berriak izan bezain pronto lanari ekingo diotela esan digute. m

ASIER UNIBASO jokalaria



20 urteko astrabudutar honek 14 urte daramatza auzoko taldean jokatzeko. Gustukoa du kirola egitea eta, gainera, ondo pasatzeko aukera eskaintzen dio taldeak. Jokalaririk gehienak bertan Astrabuduan bizi dira eta koadrila handia osatzen dute: 19tik 30 urtera arteko lagunak dira. Horregatik, oraindik ez du botak eskegitzeko asmorik. Hala ere, 14 urtez aritu ondoren, onartzen du gogorra ere badela diziplina erritmo horri eustea eta ez du uste bera 30 urteko aitite futbolaria izango denik.

Txalupa, itsasbehera

Itsasadarra zeharkatzen duen txalupak erabiltzaileen erdiak **galdu** ditu

Badira 100 urte baino gehiago txalupa Barakaldotik Erandiora, Erandiotik Barakaldora dabilela lekuko biztanleria garraiatzen. Miloika lagunek egin dute bidaia hau noiz edo noiz, baina egungo kopuruak ez du zerikusirik lehengoarekin, are gutxiago Metro Bilbaok Ibaizabaleko Ezkerralderako zerbitzua zabaldu zuenetik, apirilaren 13an. Harrezkero erabiltzaileen kopurua erdira jaitsi da, eta horrek dakarren lehen ondorioa langile murrizketak izango da, Boteros de Erandio enpresako buru Txema Fernándezek adierazi duenez. Orain artean bost langile dabilta.

“Metroa Barakaldora joan denez geroztik, askoz jende gutxiagok gurutzatzen du itsasadarra txalupaz; beraz, ordutegia aldatu beharko dugu, bai eta langile bat kaleratu ere” dio, nolabaiteko etsipenez.

Ez du beste irtenbiderik ikusten Txema Fernándezek zerbitzuari eusteko. Duela hogeita bat urte, Rontegi zubi erraldoia eraiki zutenean, tradizio handiko garraio honen beharra urritu egin zen, nahitaez, Erandio zein Barakaldoko biztanleentzat. Urteak joan eta urteak etorri, krisiak jota, itsasada-



Duela 100 urte baino gehiago sortu zen zerbitzu hau arrisku bizian dago

reko zerbitzua eten egin zen, harik eta Txema Fernándezek berau suspertzeko inbertsio bat egitea deliberatu zuen arte, 1994an. “Eta, orain, nork lagunduko dit. Metroa Ba-

rakaldon martxan jarrita, negozio hau ez da jada errentagarria” dio, ziurtasunez, baldin eta diru laguntzarik jasotzen ez badu, tradiziozko garraio gisa, sikiera. m

BEHIN BATEAN

LIBURUDENDA

Kasune, 24 ALGORTA
Tf. eta Faxa: 94 430 74 03

OLATXO

altzariak

dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 AREETA
T.: 94 464 89 94

Juan Bautista Zabala, 5 ALGORTA
T.: 94 491 13 94

**EGINKOR**
INMOBILIARIA

Basagoiti, 55 behea
T.: 94 460 09 62 / 66
Faxa: 94 460 0966
48990 ALGORTA
eginkor@euskalnet.net

Inportaziozko zerbezaritza onenak

Terraza zabala



basartena

Tel. 946 76 11 28
URDULIZ

Egunkariak

prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

Fidel Castro > Erandioko errugbilaria

“Errugbiak lagunak egiteko eta mundua ezagutzeko aukera paregabera eman dit”

Fidel hamazapi urterekin hasi zen errugbian. Gaur egun kirol honek komunikabideetan bere espazioa irabazi badu ere, orain dela hogeita lau urte kirol honetan aritzea bitxi samarra zen. Fidelek urte hauetan guztietan errugbiari ekin dio, hasieran jokalaria eta oraintxe bertan entrenatzaile gisa.

—Zergatik errugbia?

—Egia esan, apostu baten emaitza izan zen. Nire lagun batek Getxo Rugby Taldearekin entrenatzea proposatu zidan. Baietz eta ezetz tirabiran apostua egin eta hasi nintzen. Izan ere, errugbian hainbat motatako pertsonak ibiltzen dira: indartsuak, trebeak, txikiak, handiak... zelaian 15 jokalaria daude eta bakoitzak baditu bere zereginak eta ezaugarriak.

—Jokalaria eta entrenatzailea izan zara kirol honetan...

—Izan oraindik ere banaiz. Goi mailako lehiaketa orain dela zortzi urte utzi nuen Cisneros taldearen aurka hanka erabat birrindu nuenean. Handik aurrera entrena-tzaile gisa aritu naiz, baina ez diot inoiz jokatzeari utzi. Oraintxe bertan Getxo Agureak taldearekin nabil lagunarteko norgehiagoketan. Norgehiagoka hauetan afari eta parrandarako hirugarren aldia behar-beharrezkoa dugu.

—Zer eskaini dizu errugbiak?

—Batetik, argi dago, kirola egiteko aukera, eta bestetik, lagunak egiteko bidea izan da. Mundu osoan, baina batez ere estatuan, jende asko ezagutu dut eta baita benetako lagunak aurkitu ere. Errugbiak etekin ekonomiko handirik eskaini ez didan arren mundua ezagutzeko aukera paregabera



Argazkian, Fidel Castro

eman dit. Frantzia, Ingalaterra, Eskozia, Errusia, Argentina ezagutzeko parada izan dut. Bermuda irletan ere egon nintzen “agureen” World Cup-en.

—Eta kirol lorpenik?

—Getxo Rugby Taldearekin estatuko hiru kopa eta liga bat lortu ditut. Horrez gain, Bizkaia, Euskadi eta estatuko selekzioekin aritu naiz. Niretzat oso hunkigarria izan zen Euskal Herriko selekzioarekin Kataluniaren

“Errugbian talde ilana ezinbestekoa da, baten batek huts egiten badu, talde osoak porrot egin dezake”

aurka San Mamesen jokaturako norgehiagoka. Aurten ere, Euskadiko gazteen selekzioa entrenatzen ibili naiz eta txapeldunak izan gara Lurralde Selektzioen arteko Txapelketan.

—Nola ikusten duzu errugbiaren egoera?

—Gaur egun lehiakortasun handia dago errugbian. Prestakuntza fisikoa eta psikologikoa ere eskatzen ditu. Gaur ez du balio denbora pasa ibiltzeak. Izan ere, Hego Euskal Herrian “profesional” gutxi egon daiteke. Ipar Euskal Herrian, berriz, beste mundu bat dago, diru asko sartu da errugbian eta hor dago Biarritz Taldea punta-puntan nazioarteko mailako lehiaketetan.

—Eta beheko zein herri mailetan?

—Maila horietan ere arazoak ikusten ditut. Getxon, adibidez, emakumezkoen taldea ere badago, baina oso zaila da jendea erakartzea eta taldeak eskatzen duen konpromiso maila mantentzea. Errugbian taldearekin daukan konpromisoan huts egiten badu, talde osoak porrot egin dezake. Gazte askorentzat konpromiso maila hori handiegia da, oztopoa. m

Arriostarren eskulanak

Desanexio jaian euren lanak **erakutsi** zituzten

Taldea 15 emakumek eta gizon bik osatzen dute eta orain dela hiru urte elkartu ziren Arriostarrak Auzo Elkartearen ekimenez. Urte hauetan pinturan zein eskulane-tan eman dute aisialdia. Astero eta eguen guztietan Arriagako eskoletan biltzen dira. Hasieran bi baino ez ziren ausartu pinturagaz baina denbora aurrera joan ahala guz-tiak animatu dira pintzela hartzera. Jose-

bine, Marian eta Arantxak esan dutenez “*benetan pozgarria da zelan ikasi dugun ikus-tea*”. Trebezia honen errua Isabel irakasleak du. Urte hauetan ogi mamiaz, paperaz, esne kaikuaz, burdinaz eta azkenean pintura oihalekin lan egin dute, baina azken garaian beste pintoreen kopiak egiten ematen dute denbora gehiena. Arriagako jaietan atzera erakutsiko dituzte euren lanak. m




Marian, Arantxa eta Josebine, pintura lantegietan parte hartzen dute

IPUIN BILDUMA EUSKARA ZERBITZUAREN ESKUTIK

Erandio Elizateko Udalaren I. Ipuin Lehiaketan saritutako lanen bildumatxoa argitaratu berri dute. Liburuxka hau ez da salgai izango: herriko ikastetxeetan banatuko dira argitaratutako alerik gehienak, eta norbaitek aleren bat eskuratu nahi izanez gero, Euskara Zerbitzura jo dezake. Euskaraz irakurtzeko eta idazteko ohitura nolabait suspertzeko asmoz Euskara Zerbitzuak abian jarri dituen ekimenetarikoa bat da ipuin lehiaketarena, eta datorren udazkenean izango du jarraipena.

Liburua Euskara Zerbitzuan eskuratu daiteke



Loteria 4 bide
Sopela pinturak
Iparragirre 6, Sopela

san inazio
autoeskola
A1 - A - B - BTP - C1 - C
baimenak
ALGORTA Telletxe, 13
Tel. 94 460 00 4548600 SOPELANA 48620 PLENTZIA
Urkiola, 4 Laubide, 7 Portaletas, 11
Tel. 94 430 06 05 Tel. 94 676 48 39 Tel. 94 677 02 06
www.50test.com/SANINAZIO.htm

4 bide
pinturak
RIPOLIN
BONDÉX
DYRUP
Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

azpikoak, bainua eta osagarriak
K
K A L A
denboraldiberria
bainujantzietan
Basagoiti, 50 / 94 460 24 51 / ALGORTA
Gral. Concha, 1 / 94 416 95 59 / BILBO

Antzerkia umeen eskutik

Hilaren 16an, domekan, eguerdiko 13:00etan, 4 eta 8 urte bitarteko herriko zenbait gaztetzok **Romances de ciegos** lana antzeztuko dute **herriko eskoletan**

Ekitaldi hau, Udalak, BKEk eta herriko kultur eta kirol taldeen eskutik antolatutako Berangoko Kultur Astearen barruan kokatzen da; eta berau hizpide hartuz, Kultur Etxeko antzerki lantegiaren arduraduna den Fernando Ansoleagarekin berba egin dugu.

Hilaren 16an, Kultur Etxeko antzerki lantegiak, ikasturte osoko lanaren erakusle izango den *Romances de ciegos* antzezlan eskainiko digu herriko eskoletako jan-tokian. Bertan, antzina, itsuek herriz herri abesten zituzten erromantzeak plazaratuko dituzte.

Antzezpen honetan, Berangoko lau eta zortzi urte bitarteko haur batzuek parte hartuko dute eta, jakina denez, adin horretan ez da erraza antzerki lan bat zehaztasun osoz ontzea: *“Oso lan simplea prestatu dugu, euren mailara egokitutakoa. Hasieran, abestiak ikasi behar izan zituzten; ondoren testuak, eta azkenean, eszenatokian ondo jartzen ikasi dute”* azaldu zigun Fernando Ansoleagak.

Aurten, hamabost ume izan dira antzerkiaren mundua ezagutzen jardun dutenak eta Fernandoren esanetan *“umeak oso pozik egon dira antzerki tailer honetan, ikusten da ez direla behartuta etortzen eta bai oso gustukoa dutelako. Izan ere, bertan, bi eta hiru urte daramatzaten haurrak daude”*.

Antzerki lantegia
Kultur Etxeko antzerki lantegia duela zazpi bat urte hasi zen martxan. Orduan, Kultur Etxeak eta Fernando Ansoleagak antzerkiaren aldeko apostua egin zuten eta euren



Argazkietan, iaz antzerkigintzan aritu ziren herriko umeak

asmoa antzerkia txikitatik sustatzea zen, etorkizunean aktore eta aktorea izan gura duten gazteak egon daitezen eta, batez ere, antzerkiaren munduak indarra har dezan. Hori da, Fernandoren aburuz, xede nagusia;

«Merezi du antzezpena ikusteak, umeek jartzen duten ilusioa eta borondatea ikusteagatik baino ez bada ere»

eta alde horretatik oso pozik dago, izan ere, herrian zaletasun handia ikusten du: *“Haurrekin ez ezik, helduekin ere 22 urte eman ditut antzerkiaren inguruan lanean; hainbat ekintza egin ditugu eta behera joan beharrean, gorantza goazela ikusten dui”*.

Ez dugu, ez, goi mailako antzezpen horietako bat ikusiko (edo agian bai), baina bai umeek jartzen duten ilusioa eta boron-



date osoa, eta hori bada, zalantzarik gabe, 16an herriko eskoletara hurbiltzeko arrazoi nahikoa eta garrantzitsua. m



laz udako euskaltegian egondako ume talde bat

Udan gazte euskaltegia
Uztailean herriko gaztetzok **euskaraz jarduera** ugariz gozatzeko aukera izango dute: kirola, ikus-entzutekoak, txangoak...

Udan udalekuetara joan ezin duten herriko haurrentzat Berangoko Udalak eta Kultur Etxeak duela urte bi martxan jarri zuen gazte euskaltegia antolatu dute aurten ere. Gazte euskaltegia 6 eta 12 urte bitarteko ume euskaldunentzat da eta horretan hainbat ekintza egin ahal izango dituzte. Jarduera hauek lau arlo nagusiren inguruan oinarrituko dira: komunikabideak, elikadura, ingurugiroa eta irteerak.

Lehenengoarekin, hurrei ikus-entzunezko ekoizpenetan jakinmina piztea eta komunikabideak ezagutzea dute helburu antolatzaileek. Bigarrenaren xedea, umeek jakiak prestatzen ikastea eta gorputzak behar dituen elikagaiak ezagutzea da. Berango hobeto ezagutzen saiatuko dira, ingurugiroak eskaintzen dizkigun aukera guztiekin jabetzeko asmoz. Azkenik, lantegiak, kirola eta txangoak egingo dituzte talde lana eta eta euren arteko adiskidetasuna indartzeko.

Baina, gauza hauetan guztietan sakontzeaz gain, gazte euskaltegi honen helburu nagusia haurren artean euskararen erabilera indartzea da.

Aurten, eta hiru asteetan etortzeko haur askok duten ezintasuna dela eta, asteka izen emateko aukera ere badago. Beraz, abagune paregabea dute gurasoek euren hurrek udan ezagutza eta dibertsioa uztartzeko, eta beti ere euskaraz. Izena emateko epea: ekainak 25. m

LABUR LABUR


- **Noiz:** uztailaren 1etik 24ra arte, goizeko 11:00etatik 13:00etara.
- **Norentzat:** 6 eta 12 urte bitartekoentzat (euskaraz).
- **Non:** Kultur etxean.
- **Izen ematea:** inskripzio orria bete eta Kultur Etxean aurkeztu, ekainaren 25a baino lehen.



Bestelako gaiak

- Drogak
- Politika
- Bidaia
- Osasuna
- Sexualitatea
- Munduko literatura

Alangoeta 8
(Euskal Herria kalearekin bat) Tfn.: 94 491 23 79



basurto algota

telletxe 15, algota
T: 460 71 62 - 460 42 44



amesti 7sl

[eraikuntzak]
[etxeetako berrikuntzak]
[gremioen koordinaketa]

Kasune 9 ¥ Tel./Fax: 94 431 98 06
48990 ALGORTA

BISITATU
GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kizol moda



350 M²
KIROLERAKO
GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL
DENDA

TORRENE 4
ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA
TF. 94 491 18 82

[berango]

Begoña Santamaría > Harakina

“Behi zoroekin, ez genuen salmenta arazorik izan, gure **bezeroek** gugan **konfiantza** handia dute eta”



Argazkian, Begoña Santamaría eta bere senarra, Pedro Udondo

Askok ezagutuko duzue Sabino Arana kalean dagoen Udondo harategia. Bada, gaur dakargun pertsonaia bertako jabea den Begoña Sanatmaría da. Begoña orain berrogeita bi urte jaio zen. Getxokoa da izatez, baina senarra bertokoa da eta hamar bat urtetik hona Berangon bizi da. Hala ere, badira hogeita bat urte jada harategia zabaldu zuenetik.

Bertan, Begoñak eta senarrak egiten dute behar eta beti lanez gainezka badabiltza ere, oso pozik sentitzen dira, bezeroekaz duten harreman paregabea eta euren-gandik jasotzen duten konfiantza handia direla medio. Horren lekuko, behi zoroen arazoa agerian egon zenean igerri zutena

da. Ez zuten salmenta arazorik izan, bezeroek badakitelako Begoñak bere ganadu haztegia daukala Bakion, baita saltzen duen okelak eusko labela daukala ere.

Esan legez, Begoña lan eta lan dabil egunero eta honek ez dio aisialdirako denbora askorik uzten. Hala ere, beharra bukatzen duenean herrikoakaz egoteko aukerarik ez du galtzen. Hori da-eta, hain zuzen ere, Begoñak gustukoen duena: lagunekin herritik ibiltzea, eta eurekaz honetaz eta besteaz luzaro berba egitea. Harremanetan jartzen duen grinak eta bere betiko umore onak andre oso ezaguna eta estimatua bihurtu dute Begoña Berangon. Urte askotarako! m

HERRIKO JAIETAKO KARTEL LEHIAKETA

Lehiaketa honetan parte hartu gura dutenek Berangoko udalerrian errolaturik egon beharko dute eta lan bi aurkeztu ahal izango dituzte, bat Santa Ana jaietarako eta Santo Domingo jaietarako bestea. Gaia librea izango da eta adituen epaimahai batek erabakiko du zeintzuk diren. Irabazleek 120 euroko saria izango dute. Lanak, ekainaren 28ko ordu batako arte jasoko dira Berangoko Kultur Etxean.

[berango]

AGENDA

Erakusketak

Ekainak 10-16, erakusketa aretoan:
Zur lanketa eta otargintza.
Tailerretako ikasleen erakusketa.
Ekainak 17-23, erakusketa aretoan:
Altzarien zaharberrikuntza.
Ekainaren 24-30, erakusketa aretoan:
Berangoko emakume elkartearen
Eskulanak.

Umeentzako zinea

Ekainak 16, areto nagusian, 17:30:
Harry Potter.

Multiabentura

Ekainak 22, zapatua: **Multiabentura**
irteera. Sobrón eta Valdegobiara:
puenting, tirolina, rapel, piraguak...
13 urte gorakoentzat.
Izen ematea: BKEen ekainak 14.
Prezioa: 28 euro.

Jaia

Ekainaren 29an, zapatua, BKE:
Kurtso amaierako jaia.

Ludoteka

Txiki-ludoteka: 3-8 urte
bitartekoentzat (euskaraz).
Lanegunetan, 16:30etatik
18:30etara. Euskal jokoak,
asteazkeneko; lantegiak:
ostegunero.
Ludoteka: 9-14 urte bitartekoak.
18:30etatik 19:30etara.
Lantegiak, asteazkeneko;
rol jokoak ostegunero.




Santa Anako kultur etxe berrian kokatuko dute **KZgunea**

Konezta Zaitzez gunea irailean zabalduko da Santa Anan

Aurreratu genuen legez, Berangoko Udalak Kultur Etxe berria irekiko du irailean Santa Ana auzoan. Bada, Kultur Etxe berri horretan *KZgune* bat zabaltzeko asmoa du Udalak.

Uribe Kostako Mankomunitateak *KZgune* bat zabaldu zuen Sopelan duela denbora gutxi, baina oso harrera ona izan du eta txiki geratu da. Hau dela eta, Berangon beste bat irekitzea erabaki dute. Bertan,

informatika ikasteko eta Internet eta teknologia berrietan janzteko ikastaroak eskainiko dituzte. Honetarako, Eusko Jaur-laritzak jarriko dituen 15 bat ordenagailu egongo dira. Udala, berriz, lokalaren egokitzapenez eta mantenimenduaz arduratuko da. Kultur Etxea bezala, bertan egongo den *KZgunea* ere irailerako zabaldu nahi du Udalak, aipatu ikastaroak eta lantegiak ikasturte berriarekin batera has daitezzen. m



ALGORTA
dj.ak
antzerkia
erakusketak



Taberna
Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



urdaitegia • frutadenda • elikagaiak

Amezi 4 -Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA



Getxon, Palacios inguruan dagoen malakatea



Maidagan kaleko parkeko malakatea



Getxoko kiroldegiaren atzekaldeko malakatea



Golf zelaiaaren alboko malakatea




Ollarretxeko malakatea, Benantzio inguruan

[albuma]

Getxoko malakateak

Getxon baino ez daude *malakate* izenarekin ezagutzen diren eraikuntza berezi hauek. 1890eko hamarkadaren hasieran Bilboko saneamendurako ur sare erraldoia eraiki zen, sare honek Tunelboka hondartzan itsasoratzen zituen irazkin-urak eta Getxo zeharkatzen duen tunelera jaitsi ahal izateko eraiki ziren malakateak. Gerra garaian herriko jendeak aterpe moduan erabili zituen eta 40ko hamarkadan *El Coyote*, Getxoko lapur ezagunaren ezkutalekua omen zen. Guztira bost malakate dauzkagu Getxon, argazki hauetan ikusi daitezkeenak.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Alpenarriko hondartzan itsasoratzen da tunela. Horregatik hondartza hau Tunelboka izenez ere ezagutzen da.

[berbetan]

Gaur egun, Alex Ángulo erandioztarra oso aktore ezaguna da estatuan. Eta ospetsua izateaz gain, kritikoen oniritzia ere jaso du Alex de la Iglesiaren "El día de la bestia" film basatian munduaren bukaera aldarrikatzen zuen abade jesuitarena egin zuenetik. Ordutik, Alex Angulok ez dio lan egiteari utzi zinean zein telebistan. Gu berarekin elkartu gara orain arte egindakoari buruz eta bere asmoez berba egiteko.

Alex Angulo

aktore zintzo bat

Testua: **Javier G. del Herrero** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Oso lanpetuta dabil Alex Angulo azken bolada honetan eta horregatik gauez eta berandu geratu behar izan zuen gurekin. Hamarretan agertu zen hitzordura eta berehala makal zegoela ohartu ginen. Neke aurpegia zekarren eta berba egiten hasi bezain pronto, gripeak jota zegoela igarri genuen. Hala ere, bere ohizko umore ona eta alaitasuna islatzen zuen bere aurpegiak.

—Gaixorik zaudela ematen du, bajaran ez al duzu hartuko?

—Ez (barreak). Aktoreok ez dugu inoiz bajaran hartzen. Eta gehiago esango dizut: aktoreok ez gara sekulan gaixotzen; ezinezkoa da, ezin dugu.

—Baina gripea daukazu...
—Kristorena, itzelezkoa!

—Eta zelan joan zaitezke lanera baldintza horietan? (Alexek ahotsa guztiz hartuta dauka) Zelan egiten duzu ahotsarena ez nabaritzeko? Gidoia moldatzen dizute?

—Ez, ez, kea! Gidoia ez dute sekulan aldatzen. Gaixorik egonez gero, hori ez adierazten saiatu behar gara, ez da igarri behar. Ez da erraza baina kapituluak (*Periodistas* saioarenak) egunero grabatu behar dira eta aktoreen egoera fisikoek ezin dute errodajea oztopatu.

—Orain *Periodistas* saioan zabiltza burubelarra sartuta. Horregatik bizi zara Madrilén?

—Bai, pentsa ezazu egunero grabatzen ditugula kapitulu berriak; beraz, egunero lan egin behar dut Madrilén, astelehenetik ostiralera, eta askotan berandu ateratzen


gara. Ezin naiz egunero Bilbotik Madrilera eta Madriletik Bilbora ibili. Hori bai, aste-bururo etxera bueltatzen naiz.

—Zinean zein telebistan, lan onak lortzeko, Madrilén bizitzea beharrezkoa dela pentsatzen duzun horietakoa zara?

—Ez. Lagungarria da, noski, hori ez dago ukatzerik, baina lanak edozein lekutan eta edozein lekutik lor daitezke, hori bai! Lan handia eginez eta zorte apur batekin.

—Zuk zorte ona eduki duzula uste duzu? —Nik zorte handia daukat gustatzen zaidana eginez bizi naizelako. Arrakasta, zorteak eta lanak ematen dute.

—Euskal aktore asko joan dira Madrilera. Zelan ikusten duzu lekualdatze hau?



—Euskal Herrian oso harrobi ona dago. Antzerki eskola garrantzitsuak ditugu eta hortaz, guztiz logikoa iruditzen zait aktore eta aktorea onak, baina on-onak, ateratzea.

—Zuk dagoeneko izen handia lortu duzu zinearen munduan. Zergatik zabilta orain telebistan? Diru kontua al da? —Ez. Diruak, jakina, badauka bere garrantzia. Telesaio batean lan egiteak nolabait di-

“Nik zorte handia daukat, gustatzen zaidana eginez bizi naiz eta. Arrakasta, zorteak eta lanak ematen dute”

rua ziurtatzen du (telesaioa bukatzen ez den, edo audientzia eskasagatik kentzen ez duten bitartean, behintzat), baina hori baino arrazoi gehiago badaude. Niretzat erronka berria izan zen. Nik, nire izaeragatik, gustukoa dut gauza berriak egitea eta horregatik eman nuen antzerkitik zinemarako jauzia eta horregatik ere, telebistan lan egitera ausartu nintzen.

“Beldur eszenikoak, hau da, ikusleen edo kameraren aurrean ikara sentitzeak, ez du aktore baten trebetasuna baldintzatzen”

—Baina zinea ez duzu baztertu, ezta? —Ez, orain dela gutxi film bat promozionatzen ibili naiz; *Todo menos la chica*. Egin dudan azkenetakoa da eta estreinatu dudan azkena.

—Lehen esan duzu antzerkian hasi zinela. Noiz eta zergatik aukeratu zenuen lanbide hau? —19 urte nituela hasi nintzen antzezpenak egiten *Cómicos de la legua* konpainiarekin. Gero, *Karraka* taldean ibili nintzen eta ondoren bi urte eman nituen Parisen antzerkia ikasten. Baina inoiz ez nuen pentsa-

tu lan honetan hain urrun helduko nintzenik. Egia esan, ez nion sekula nire buruari horrelako galderarik egin, hau da, noraino heldu nintekeen, noraino heldu nahi nuen edo honetaz bizi nahi nuen ala ez. Nire ikasketekin jarraitu nuen, bukatu nituen (Alex Angulo irakasle izateko ikasi zuen, irakaslea da) eta eskolak ematen hasi nintzen. Aldi berean lan biak egiten nituen, bakarra aukeratzeko momentua heldu zitzaidan arte.

Orduan irakaskuntza baztertu nuen buru belarri antzerkigintzan murgiltzeko.

—Geroago zinean Imanol Uriberen "La fuga de Segovia" filmean parte hartu zenuen. Baina nahiko kostatu zaizu izen bat lortzea, ezaguna izatea... —Bai, ospea *El día de la bestia*, Alex de la Iglesiaren filmarekin etorri zitzaidan.

Berandu, urte asko lanean eman ondoren lortu nuela esan daiteke, baina beti da hobe berandu inoiz ez baino.

—Zein zuzendari edo aktoreekin ikasi duzu gehien? —Lan egin dudan aktore guztiekin ikasi izan dut beti, guztiekin: *Cómicos de la legua* konpainiako lagunekin, *Karraka*-koekin...

—Izen garrantzitsuren bat esango zenuela uste nuen. Horren bila nenbilen galdera egiterakoan. —Bai, baina izen garrantzitsuak, azkenean,

ez dira hain garrantzitsuak. Nik aktore famatuekin baino gehiago, lanaz eta bizitzaz kaleko jendearekin eta lagunekin ikasi dut. Izen asko aipa nitzake, zerrenda amaigabea litzateke. Orain esaterako, Ramón Barea datorkit gogora.

—Betiko galdera egingo banizu, hau da, ea zer nahiago duzun, zinea, antzerkia ala telebista, erantzuna betikoa izango litzateke? —Seguru asko bai, hirurak gustatzen zaizkit eta. Hirurek badauzkate alde onak eta txarrak. Baina antzerkia berezia da; antzerkian ikusleen aurrean aukera bakarra dago, ezin da hutsik egin. —Hortaz, beldur eszeniko delakoa benetakoa al da? —Izaten da, bai, eta gainera ez da inoiz galtzen. Baina ez da gauza txarra. Jendeak edo kameraren aurrean beldurra sentitzeak ez du baldintzatzen aktore baten trebetasuna.

—Zein da aktore izateak daukan alderik txarrena eta zein onena? —Erantzun zaila du galdera horrek. Norberak bilatzen duenaren arabera izango litzateke. Bilatzen dena dirua baldin bada, onena dirua litzateke... Orokorrean, lanbide honek daukan onena eta txarrena dirua dela esan genezake.

—Zelan eramaten da aurpegi ezaguna izatearena, ospea orokorrean? —Jende askok pertsona eta pertsonaiaren artean desberdintzen ez jakiteak harritzen nau sarritan. Arraroa egiten zait kaletik noala Blas (*Periodistas* telesaioan antzezten duen pertsonaia) deitzen didatenean edota telesaioan beste aktorea bati muxu bat ematen diodanean ea nire emaztea haserretzen den galdetzen didatenean... Ospeak bere alde txarra ere badauka. Egia esan prezioa ez da garestia.

—Intimitatea galtzeaz gain, zerbait gehiagori egin behar izan diozu uko ospea dela eta? —Bai, baina hori hasieratik banekien; zerbait irabazten duzun bakoitzean, galdu ere, zerbait galdu behar duzu. Guztiz normala iruditzen zait. Zahartzen garen neurrian gaztetasunari uko egiten diogun bezala,



“Azkenean izen garrantzitsuak ez dira hain garrantzitsuak. Nik, lanaz eta bizitzaz, aktore famatuekin baino gehiago, kaleko jendearekin eta lagunekin ikasi dut”

ospearekin gauza batzuk galdu behar dituzu... eta beste batzuk irabazi.

—Denboran atzera egiteko aukera eskainiko balizute, zerbait aldatuko zenuke? —Ez dut uste. Posible balitz, gauza batzuk beste modu batean egingo nituzke; baina ez, ez nuke ezer aldatuko.

—Baduzu oraindik bete ez den ametsik? —Betetzeko ametsak edukitzea baino, na-

hiago dut bizitzak ni harritzea. Orain arte horrela jokatu izan dut eta horrela gertatu izan zait.

—Eta aurrerantzean zer? —Orain arte bezala, *Periodistas* telesaioan jarraituko dut. Laster, udan, atsedena hartuko dugu eta Blas ahazteko oso ondo etorriko zait; egia esan, behar hori eduki badaukat. Pertsonaia hau antzezteagatik eskaintza bat baino gehiago baztertu izan behar dut. ^m

LABUR-LABUR

Izena: Alex Angulo.
Jaioterria: Erandio.
Adina: 49.
Hautzaroko irudi bat: Nire gurasoen etxea, trenbidea eta errekaen artean.
Ikusi duzun azkeneko filma: <i>El hijo de la novia</i> .
Eta gehien ikusi duzuna? Federico Felliniren <i>Amarcord</i> edo Ridley Scott-en <i>Blade Runner</i> .
Zein da zure filmik gustukoena? Bi horiek.
Gustukoa duzun zinema zuzendari bat: Alex de la Iglesia.
Gustuko duzun aktore bat: José Ramón Barea.
Eta aktorea bat? Leonor Watling, Maria Pujante...

Lotu barik. Hori izan da aurtengo Ibilaldiaren leloa eta baita ere San Nikolas ikastolaren egun handian parte hartu zuten euskaldunek egin zutena. Izan ere, inor ez zen geldi egon Getxon euskararen aldeko egunean, euriak lagundu ez zuen arren. Orrialdeotara egun gogoangarri hartan hartutako irudiak ekarri nahi izan ditugu.

Ibilaldia 02

Maiatzak 26, oroimenerako eguna

Testua: **Javier G. del Herrero** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Eguna ilun-ilun esnatu zen baina haize gogorra eta eguraldi desatsegina ahaztuz, 125.000 lagun baino gehiago bildu ziren Getxora San Nikolas ikastolaren alde. Eguzkiak baino ez zuen hitzordura hutsik egin eta batek baino gehiago faltan bota bazuen ere, aurrikusitako ekitaldi guztiak eragozpenik gabe egin ahal izan ziren. Antolatzaileak pozik azaldu dira egunaren balantzea egiteko orduan, eta zeozer nabarmentzekotan, giro ona, partehartze handia eta normaltasuna nabarmendu dituzte.

Bestetik, ia 2.000 lagun ibili ziren lanean boluntario gisa Ibilaldiaren antolatketan eta haiei ere euren esker ona adierazi nahi izan diete antolatzaileek, lortutako arrakasta euren zor zaielako. Haiei eta bisitatu gintuzten lagun euskaltzale guztiei esker, lotu barik euskarari beste bultzada bat eman zaio.

Ibilaldiaren egunean bertan jakinarazi zenez, Lekeitioko Azkue eta Ondarroako Zubizahar ikastolak dira 2003. urteko jaialdia antolatzeko ardura hartu dutenak. Ez da lehenengo aldia izango; izan ere, 1983an Lekeition historiako bosgarren Ibilaldia ospatu baitzen *"Euskararik gabeko Euskadi, kresalik gabeko itsasoa"* lelopean. Hamar urte beranduago, 1993an, 80.000 lagun hurbildu ziren Ondarroan egin zen ikastolen aldeko jaialdira.

Azkeneko balorazioa


Ibilaldia pasatu eta handik lau egunetara Getxoko alkateak eta San Nikolas ikastolako eta Bizkaiko Ikastolen elkarteak ordezkariek prentsaurrekoa eskaini zuten Ibilaldiaren azkeneko balorazioa egiteko. Hirurek esandakoaren arabera balantzea guztiz positiboa da; bai lortu den diru aldetik eta bai parte-

hartze aldetik ere. *"Ez dago jakiterik eguraldi ona egin izan balu zer gertatuko ote zen"* adierazi zuen neke aurpegiarekin, baina pozik Anton Azkargortak, San Nikolas Ikastolako presidenteak azkeneko prentsaurrekoan. m

LABUR LABUR

- Ibilaldiaren egunean, eguerdiko ordu bietarako janaria eta edariak agortuta zeuden txosna batzuetan. Guztira **40 milioi** pezeta (240.000 euro) jaso ziren.
- **2.000 pertsonak** lagundu zuten prestakuntza eta garbiketa lanetan. Guztira **40.000 ordu** baino gehiago egin dira antolakuntzan.
- **125.000 euskaltzale**tik gora bildu ziren Getxora Ibiladian.







Izan ala ez

Aktore izatea ez da lan erraza eta are gutxiago lanbide honetatik bizitzea. Bide hau jarraitzea erabaki dutenek ondo dakite hori. Hala ere, ez dira gutxi gure eskualdean aktore izatea erabaki duten gazteak. Beraien etorkizuna airean dago, baina ilusio handiaz ari dira eszenatokien gainean eta huts egingo ez dutelakoan gaude. Uribe Kostakoak dira, euskaldunak eta aktoreak. Euskal antzerkiaren etorkizuna euren eskuetan ere badago.

Testuak: Javi G. del Herre Argazkiak: Asier Mentsaka




Jon Urraza. 30 urte, Getxokoa.

Irabazteko arriskatu

Euskadiko Lehenengo Bakarrizketen Txapelketan bigarrena sailkatu da aurten Jon Urraza aktore gaztea eta, beraz, poz-pozik dabil aukeratu duen bizimoduarekin. “*Lanbide hau aukeratu nuen banekien ez zela xamurra izango honetatik bizitzea baina hasi nintzenetik, lanik behintzat ez zait faltatu. Espero nuen baino askoz hobeto doakit*”, azaldu zigun Jonek. “*Antzezteaz gain antzezpen eskolak ematen ditut*.” Ikasketak bukatu eta antzerki tailer batean azaldu zitzaion bere benetako bokazioa. Getxoko Antzerki Eskolan ikasi zuen joan den ekainera arte eta ordutik lanean dabil etengabe. “*Batez ere antzerkia egiten dut. Telebista gutxi egin dut baina lan-esperientzia aberasgarria iruditu zitzaidan; hori bai! Ezberdina arrapaladan egiten baitute dena. Baina interesgarria benetan profesional handiak baitira hor dabiltzanak*. Baina darman denbora gutxian, Jonek hain profesionalak ez ziren beste batzuk ere ezagutu ditu. “*Behin telebista txiki batek gure antzezpen bat grabatu zuen eta grabaketa eskatu genienean ikusteko, 35 eurotan saldu nahi ziguten zinta*”. m

Jon Urrazak, zinean *Nora ezean* (laburmetraia) egin du; telebistan *Goenkale-ko kapitulu bat* eta antzerkian *Setzuango arima garbia* eta *Mejor mal acompañado que solo lanak*.




Alex Gerediaga. 27 urte, Bilbokoa.

Ideiak argi

Juan Antxeta Antzerki Eskolan izena eman nuenean, aitak esaten zuen porroak erretzeko egiten nuela”. Horrela azaldu zigun Alex Gerediaga bilbotarrak zelan hasi zen antzerkian. Arrazoia ere sinplea izan zen: “*Probatzeagatik egin nuen. Geroago, antzerki eskolatik atera nintzenean Mina Espazioko jendearekin hasi nintzen eta serioago hartu nuen*”. Hasieran ez zeukan oso argi baina gaur egun ondo daki Alexek zer izan nahi duen; “*Zinean gustura lan egingo nuke baina ia ezinezkoa da Madrilera joan barik eta nik ez daukat industriaren munduan borrokatzeko asmorik. Ez dut ezaguna izan nahi. Ni ez naiz ospea bilatzen duten horietakoa. Beste aktore mota batekoa naiz*”. Eskarmentu handikoa; 1997an bukatu zituen ikasketak eta ordutik eten gabe lan egin du. “*1998an gure konpainia propioa sortu genuen, Antzerkiola imajinarioa eta hutsune bat lortu dugu antzerkiaren munduan. Geure antzerki emanaldietan guk geuk egiten dugu dena (gidoia, musika...) eta horrek askatasun handia ematen digu. Horri esker gaur egun profesionalak gara*”. m

Alex Gerediagak *Mis rarezas dirías tú*, 8 olivetti poetiko, *Caja XXI Kutxa*, *Mundopolski*; *erreboltaren ziaboga* eta *Edipope*; *la historia de siempre* antzerki lanetan hartu du parte.





Aiora Sedano. 20 urte, Erandiokoa.

Aktoresa txikitatik

Gaztea izan arren, Aiora Sedanok lan ugari egin ditu antzerkian eta zinean ere dagoeneko lehenengo urratsak eman ditu, Pedro Mari Santos zuzendari bilbotarraren aginduetara. *Agujeros en el cielo* da orain arte egin duen filma bakarra eta lan-esperientzia ona izan zen arren, momentuz ez dauka bigarrena egiteko presarik. “*Dena helduko da. Momentuz antzerkian jarraitzeko asmoa daukat, behintzat nire antzerki ikasketak bukatu arte*”. Txikitatik jakin zuen Aiorak aktorea izan nahi zuela. “*Ikastolan eta institutuan antzerki taldeetan ibili nintzen eta duela sei urte Erandioko Emakume Taldeak duen antzerki taldean hasi nintzen, paper txikiak antzezten hasieran, eta potologoak geroago*”, azaldu zigun. Eta bide honetatik jarraitzeko asmoa daukala adierazi zigun. “*Famatu izatea ez dut helburu, baina honetatik bizi nahi dudala argi daukat; antzezten, antzerki eskolak ematen...*”. Antzerkia ondo egitea zaila dela ondo daki Aiorak, baina horrek ez du beldurtzen. “*Badakit zineak baino diru gutxiago ematen duela baina nire etorkizuna antzerkian dago*”. m

Aiora Sedanok *La casa de Bernarda alba*, *La nada cotidiana*, *Tengamos el sexo en paz*, *Yerma* eta *Mujer en la ventana* lanetan hartu du parte.



Na Gomes. 28 urte, Leioakoa.

Bere burua aurkitu duena

Bere benetako izena Nacho Gómez den arren, Na Gomez aukeratu du izen artistikotzat eta horrela deitzen diote lagunek ere. “*Askotan izen honekin ez naizela urrun helduko esaten didate txantxetan, baina ez dit axola*”, esan zigun barreka. Publizista izateko ikasi zuen Nak, baina beti jakin du bere etorkizuna ez zegoela negozioen munduan. “*Haurtzaindegitik ezagutzen nuen Alex (Alex Gerediaga aktorea) eta benak bultzatu ninduen antzerkiaren mundura. Berarekin hasi baino lehen eguneroko antzerkia, bizitzarena, baino ez nuen ezagutzen. Baina Alexi esker, Ander Lipusekin ikasteko aukera eduki nuen*”. 1998an izan zen hori. Ordutik gazte honek lan ugari egin ditu antzerkian. “*Lan egiten ikasten da antzezten. Ez dago beste modurik. Nik ez dut inoiz antzerki eskolarik zapaldu, erabaki hori errespetatzen dudan arren*”, azaldu zigun. “*Edonor izan daiteke aktore baina aktore ona izatea, jakina, beste kontu bat da*”. Naren ustez, berak oraindik bide luzea egin behar izango du maila horretara heltzeko “*Hala ere, egunero zerbait ikasten jarraitzen dut; gogorik, behintzat, ez zait falta*” esan zigun. m

Na Gomes-ek *8 olivetti poetiko*, *Aló Europa*, *Deseo* eta *Edipope*; *La historia de siempre* antzerki lanetan parte hartu du.

Patricia Herrera. 20 urte, Erromokoa.

Fede handiarekin

Erizaina da Patricia Herrera gaztea, baina karrera bukatu ostean antzerkigintza ere ikasi zuen, hau da bere benetako pasioa. Euskaldun berria den arren, euskaraz zein erdaraz antzezteko gai da Patricia. Antzerki Amateur-eko Aktoresa Sekundariorik onena izendatu zuten 1997an eta ordutik eten gabe dabil lanean nahiz eta oraindik ez duen profesionalizaziorako jauzia eman. “*Familiak zein lagunek aukeratu dudana lanbidearen alde txarra aipatzen didate sarritan, baina nik argi daukat aktorea izan nahi dudala*” esan zigun. Antzezteaz gain, erromotar irribarretsu hau kontu kontalaria ere bada eta antzerki eskolak ematen ditu Sopolako ikastolan eta Getxoko Antzerki Eskolan. Badaki antzerkiaz bizitzea ez dela erraza izango baina arriskatzeko prest dago. “*Antzerkia egiten ezinezkoa da aberastea eta bizitzea ere zaila izan daiteke. Nik garai txarrak pasatu ditut, baina inoiz ez naiz damutu hartu nuen erabakiaz. Asko kostatu zitzaidan jaso nituen presioa dela-eta, baina konfiantza handia daukat nire buruarengan*” aitortu zigun. m

Patricia Herrerak besteak beste *Setzuango arima garbia* eta *La comedia sin título* antzezlanean hartu du parte.




Aitor Koteron. 17 urte, Erandio-Goikoa.

Itxaropena galdu barik

Bertsotan aditua izateaz gain, Aitor Koteronek panderoa eta soinua jotzen ere badaki, baina morrosko honen benetako pasioa interpretazioa izan da beti. “*Txikitatik gustatu izan zait lanbide hau. 1996an kurrikuluma bidali nuen ETBren Miramoneko estudioetara, baina ez zidaten deitu. Hiru urte geroago, 1999an, Pausokak antolatu zuen kasting batera aurkeztu nintzen eta proba bat egin ondoren, handik ekoizlearen bulego nagusira bidali ninduten kurrikuluma emateko. Han, kurrikulumen multzoan utzi beharrean, eskura eman nion nik nire kastingeko arduradunari. Geroago erantzunaren zain egon behar izan nuenean, inoiz ez nuen itxaropena galdu. Itxaropena ezin da galdu; beti daude aukerak eta. Nik hori sinestu nuen bihotz-bihotzez eta, nire ustez, horrek eraman nau telebistara*”. Baina Goenkale-ko ohiko aurpegia izateaz gain, Aitor bigarren batxilergoa ikasten dabil eta zaila egiten zaiola onartzen du; “*Gauza biak aldi berean egitea, edo behintzat ondo egitea, ez da batere erraza. Telebistak stress handia eragin du, nahiz eta nire kasuan, behintzat, lan giro ederra dagoen*”. m

Aitor Koteronek *Goenkale*-n egiten du lan. Antzerkigintzan, berriz, hainbat bakarrizketa eginak ditu.





MAHE



PAPAGAYO., LANZAROTE


Bruno Fernández



Aspaldian hartu zuen labidetzat fotografia Bruno Fernándezek (Getxo, 1959). Bere argazkiak besteak beste, *Galea* aldizkarian edota *El Correo* egunkarian argitaratu dira. Gaur egun batez ere, fotografia industrial lantzen du baina bere sormen lan pertsonalak ere egiten ditu. Zuri beltzean objektuak fotografiatzea gustatzen zaio. Ibiltaria ere bada Bruno eta munduan zehar milaka argazki hartuak ditu, bere artxiboan 5.000 iruditik gora daude gaur egun. Urak elkartzen dituen argazki sorta eder hau utzi digu.



SANTIAGO PRAIA, CABO VERDE



SANTORINI, GREZIA



TAHITI



MIKONOS, GREZIA



SANTORINI, GREZIA



SEYCHELLES



VENEZIA, ITALIA



TAHITI



CAYO COCO, KUBA



TULUM, MEXIKO

Iñaki Elorriaga > Getxoko Kultur Etxeko zinema arduraduna

“Filmak aukeratzean kontuan hartzen ditugu ikusleen eskakizunak”



Argazkian, Iñaki Elorriaga bere bulegoan

Getxoko Kultur Etxeak zinema eskaintza zabala egiten du urtean zehar. Aurten esaterako, 75 film inguru programatu ditu. Aurtengo denboraldia orain dela gutxi amaitu denez, Iñaki Elorriagarengana jo dugu. Zinemazale handia da bera eta aldi berean Kultur Etxeko zinema arduraduna. Aurtengo balantzea eta datorren urterako berritasunak azaldu dizkigu.

—Hiru zine ziklo ezberdin eskaintzen dituzue. Zertan dira ezberdin?
—*Zinekluba* izenekoan, eskaintzen ditugun pelikulak komertzialagoak izaten dira (azkeneko bi urteetako estreinaldi nagusiak). *Cinema Paradiso* izenekoan, berriz, eskaintzen duguna guztiz ezberdina da; gurean estreinatu ez diren aurrekontu gutxiko filmak, independenteak, jatorrizko bertsoan eta azpitituluekin ematen ditugu. Film hauek lortzea sarritan ez da lan erraza izaten baina gero ikusleek eskertzen dute. Hirugarren zikloa, *Haur zinea*, izenak dioenez, umeei zuzenduta dago eta euskaraz zein gaztelaniaz izan daitezke. Honez gain, luzemetraiak baino

lehen, askotan herriko egileen film laburrak eskaintzen ditugu.
—**Kultur Etxeak aspalditik dauka zinema programazioa, noiz hasi zineten zehazki ziklo hauekin?**
—Aurten *Cinema Paradiso*-ren hamargarren urteurrena beteko da; *Haur zinea* promagarekin 17 urte daramatzagu eta 24 urte *Zinekluba*-rekin.
—**Eta zein da arrakastatsuen?**
—*Zinekluba*, ziklo honetan eskaintzen ditugun pelikulak komertzialagoak izaten dira eta. Azpitituludunak, berriz, (*Cinema Paradiso*), ohitura faltagatik, jarraitzeko zailagoak dira ikusle gehientzat. Hala ere, adibidez, *Kandahar* aurtengo sorpre-

sarik handienetarikoa izan da, 400 ikusle hurbildu baitziren Getxo Antzokira proiektatu genuen egunean, Afganistango filma ezezaguna izan arren.
—**Beraz, balantzea ona ezta?**
—Oso ona. Iazko ikusleen kopurua mantendu dugu eta, beraz, datorren urteari begira baikorrak izateko arrazoiak badaude.
—**Zelan aukeratzen dituzue pelikulak?**
—Jendeak eskatu ditzake eta eskakizunak aztertu ondoren beti saiatzen gara pelikula horiek ekartzen. Batzuetan oso zaila da kopia bakarra dagoelako estatu osorako, arazoak eduki ditzaketelako mugak zeharkatzeko (uste baino sarriagotan gertatzen da), banatzaileek oztopoak jartzen dituztelako (Disneyk, adibidez, askotan egiten du), kopiak baldintza txarretan heltzen direlako...
—**Garestia al da pelikula bat ekartzea?**
—Pelikularen arabera. Berriek 100.000 pezeta inguru balio dute eta *Cinema Paradiso*-ra eskaintzen ditugunak berriz, 40.000 pezeta inguru. Hala ere, lehen esan dizudan bezala, azkeneko hauek lortzea gaxtagoa izaten da.
—**Zer aurreratu diezagukezu datorren urteari begira?**
—Laster beteko den *Cinema Paradiso* zikloaren hamargarren urteurrena ospatzeko *Ellin, Xiu Xiu, Italiano para principiantes* eta Kubricken *La naranja mecánica* proiektatzen saiatuko gara. m

DATUAK

- **75 pelikula** eskaini dituzte denboraldi honetan.
- **33.000 ikusletik gora** ikusi izan dituzte film hauek.
- Ezusterik handiena **Kandahar** izan da; **400 lagunek** aretoa bete zuten.

Zinemara ilaran itxaron barik

Eskualdeko zinemetan ilaran itxaron barik **sarrerak** eskuratzeko arrasto guztiak



Sarritan, batez ere asteburuetan, ez da erraza izaten sarrera bat eskuratzea

Zinemara joatea berriro ere modan dagoela ematen du. Asteburuetan ilara luzeak egoten dira Uribe Kostako zinema aretoetan (*El señor de los anillos* eta *Harry Potter* filmek, besteak beste, zine aretoak bete dituzte eta esandakoaren adibide argiak dira) eta gaur egun, goiz, oso goiz, joan behar izaten da zinemara sarrera bat lortu ahal izateko. Baina badaude eragozpen hauek saihesteko bideak. Hauxek dituzue eskualdeko zinema aretoetan ilara nekagarriak ez sufritzeko arrasto batzuk.

LAUREN ZINEMAK (Kirol Portua)
Telefonoz: 944 310 310 telefonora deituz eta kreditu txartelaren zenbakia emanez sarrerak erreserbatu daitezke. Gero, BBKren kutxazain multizerbitzuetan edo zine aretoan bertan dauden makinetan, sarrerak eskuratu ditzakegu. **Banketxean:** BBKren kutxazain multizerbitzuetan zuzenean atera daitezke.

ARTEA (Leioa)
Internet: www.cinesa.es orrialdean sartuz eta kreditu txartelaren bitartez sarrerak eros daitezke. **Banketxean:** Caixaren bulegoetan eta ServiCaixa kutxazainetan kreditu txartelarekin. **Telefonoz:** 902 333 231 telefonora deituz eta txartelaren zenbakia emanez. Telefonoz emango diguten gakoa, zine aretoan dagoen “Servientradas” izeneko makinan sartuz, sarrerak eskuratuko ditugu.

webgida

www.portared.com



Berri ugari eta interesgarriak eskaintzen dira hemen; jaialdiak, lehiaketak... E-mailez egunero eta doan boletin bat banatzen dute bezperako berri nagusiekin. Grafismo alde-tik, kaxkarra, hala ere, merezi du.

www.tvlocal.com



Telebista eta produktora ezberdinak eza-gutzeko edo zinearen munduan lana bilatzeko ezinbesteko helbidea da tvocal.com. Web eder honek ere, Estatu osoko telebisten zerrenda dakar.

www.peliculitas.com



Bilatzaile handien krisien dauden garai hauetan, *site* berri hau indar handiz sartu da sarean. Biografiak, argazkiak, trailer berriak, pelikulen kartelak,... Eskaintza ona eta oso oparoa.

Euskadiko Filmategia

Zimenazaleentzako **erreferentzia** gunea

1978an sortua, Euskadiko Filmategia irabazi-asmorik gabeko erakundea da. Elkartearen helburua euskal zinea aztertzeko interesgarriak izan daitezkeen filmak ikertu, berreskuratu, artxibatu, gorde eta erakustea da. Euskadiko Filmategiaren lanari esker, kultura edo historiaren ikuspegitik garrantzitsuak diren eta desagertzeko arriskuan zeuden hainbat film berreskuratu eta zaharberritu dira. Dagoeneko Euskal Herrian edo Euskal Herriari buruz filmatutako film gehienen informazioa erakunde honen artxiboetan dago eta kontsultatu daiteke. Edozein zinemazale euskaldunarentzat erreferentzia gunea da filmategi hau. m

Filmategian

- 15.000.000 metro pelikula
- 5.000 pelikuletako kartelak
- 19.000 aldizkari baino gehiago
- 600 soinu-banda
- 55.000 argazkitik gora
- 3.500 zinemari buruzko liburu
- Zinemarekin lotutako hainbat tresna: kamara, proiektoreak...

Euskadiko Filmategia, Sancho el Sabio 17, Etorbidea. 20010 Donostia.
Tel. 94346 84 84
www.paisvasco.com/filmoteca
Mail: filmoteca@facilnet.es

webgida

MUSIKA DOAN

>www.elitimp3.net

Musikari buruz gaztelaniaz dagoen webgune onenetakoa da. Bertan disko zerrenda luzea aurki daiteke eta, noski, kanta eta disko osoak gure ordenadorera jaisteko aukera dugu. *Gaztelaniaz.*

DENETARIK

> www.weblisten.com

Telebistako iragarkiak eta musika deskargatzeko aukera emateaz gain, webgune honek beste hainbat zerbitzu eskaintzen ditu. Esaterako, internautek euren maketak bertan kokatu ditzakete. *Gaztelaniaz.*

LATINOA

> www.lamusica.com

Pop musika latinoari buruzko informazioa ingelesez eta gaztelaniaz; berriak, bideoak, elkarrizketak eta hainbat kantarien biografiak... *Gaztelaniaz & ingelesez.*

Txiberri

punk, rock, ska... Urdulizen

Urdulizko taberna honek agur esan dio aurtengo programazio musikariari. Bertan jo izan dituzten taldeen artean *Tijuana no mexikarrak*, *Oximoron* alemaniarrek eta *Fito y los fitipaldis* nabarmendu ditu Kepa Ariztegi, tabernako jabeetako bat dena. Duela zazpi urte hasi ziren Txiberrin kontzertuak antolatzen. Emanaldiek ez dute egun zehatzik izaten baina, udan izan ezik, ostiral eta larunbatetan egiten ohi dira. Jeneralean punk, rock, hardcore eta ska soinuak entzun daitezke Txiberrin.

TXIBERRI Aita Gotzon 4, Urduliz

Argazkian, Kepa Ariztegi



Herriko taldeen kontzertua

Ekainaren 21ean, Europako **Musika** Egunean, **25 taldek** joko dute San Nikolas plazan

Riff Musika Eskolako 60 bat ikaslek 25 emanaldi eskainiko dituzte datorren ekainaren 21ean, ostirala, arratsaldeko zortzietatik aurrera Algortako San Nikolas enparantzan Europako Musika Eguna ospatzeko. Festa hau Getxoko Kultur Etxearen ekimen bat da eta Riff Musika Eskolako zuzendaria den Miguel Moyanoren ustez, *“Aukera ezin hobe-a da gure ikasleentzat, urtean zehar ikasitakoak jendearen aurrean jotzeko aukera eskaintzen baitie”*. Joko duten ikasleen artean

denetarik egongo da; eskarmentu handiko jendea, musika ikasten urteak eman dituen eta aurten hasi diren ikasle berriak. *“Hala ere, maila altua izango da”*, esan zigun Miguelek. Gazte honek lau urte daramatza musika irakasten Villamonte kalean duen Riff izeneko dendan eta musika eskolan. Gaur 100 gaztek baino gehiago ikasten dute Riff-en. Ikasitakoa ekainaren 21ean entzun ahal izango dugu. ^m

Harremanetarako: Riff, 94 430 31 32



Ikasle batzuk Riff musika eskolan trebatze lanetan

Badator Getxoko Jazzaldia

Ezinbesteko **hitzordua** uztailaren lehengo astean

Uztailaren 3tik 7ra bitartean, Getxoko kaleak eta bazterrak musikaz beteko dira. Urtero bezala, eta aurten ere, Getxoko Jazzaldiak ikusmin handia piztu du eta ulergarria da, XXVI. edizio honetan musikagile handiak egongo baitira gure artean. Besteak beste, Miroslav Viotus baxua, Michel Portal saxofoijole, Mino Cinelu perkusionista edota Willem Breuker eta bere orkestra. Aipamen berezia merezi du Michel Camilo pianojole eta musikagile dominikar ospetsuak eskainiko duen kontzertuak. Camilok urteak daramatza musika egiten eta gaur egun oso artista ezaguna da mundu osoan. Besteak beste, Estatu Batuetan, Kariben eta Japonen jo izan du, Errepublika Dominikarrako Orkestraren zuzendaria ere izan da eta zaletu eta kritikoen txaloak jaso ditu mundu osoan. Guztira hamalau taldek joko dute aurtengo Getxoko Jazzaldian, iraungo duen bost egunetan. Kontzertuak ohi bezala, Bihotz Alai eta Getxo Antzokiko plazetan jarriko diren eszenatokietan izango dira.

Erradiografia



Reston Sobres taldeko kideen emanaldia Erromoko taberna batean

Taldea Reston Sobres


Izena: *Reston sobres*. **Nondik dator izena?** Lagun batek kamiseta bat erosi zuen Frantzian esaldi horrekin. Euskaraz "Mozkortu barik jarraitzen dugu" esan nahi du. Leloa gustatu zitzaigun eta horrela deitu genion taldeari. **Jaio ziren:** Orain dela zortzi urte. Gaur egungo kideek bost urte daramatzate elkarrekin jotzen. **Taldeko kideak:** Felipe Sobrado (ahotsa), Endika Basaguden (gitarra), Pablo Abad (baxua), Iñigo Burzako (bateria). **Nongoak dira:** Felipe, Pablo eta Iñigo Getxokoak eta

Endika, Berangokoa. **Gustatzen zaie:** hardcorea eta punk musika estiloa orokorrean; *Intolerance*, *Minor Threart*, *BAP*. **Diskografia:** Maketa bat; *Razones para gritar* (1999) eta disko bat; *Fin de siglo* (2002). **Besteak beste, jo dute:** Bizkaiko gaztetxe gehienetan. **Euskal musikaren egoera:** “Euskal musikak estatuko musikak jarraitzen dituen eredu berberak errepikatzen ditu”. **Hizkuntza:** Erdaraz abesten dute. ^m

Harremanetarako: Felipe 94 430 68 25

> Nire kanta kutunak

URKO*



ERDARAZKO KANTA KUTUNAK

01. Camarón de la Isla “Paris 87”
02. José Menese “El viento solano”
03. The Sabri Brothers “Ya Habib”
04. Musique des Derviches tourneurs de Damasco
05. Tomás San Miguel “Lezao”
06. J. Mosalini “Tango bordoneo 900”
07. Tradizao “Fados”
08. Susheela Raman
09. Pedro Iturralde “Sax a pel”
10. J. Sabina “19 días y 500 noches”

EUSKARAZKO KANTARIK ONENAK

01. X. Lete “Behar zaitut Euskadi”
02. Gorka Knorr “Araba”
03. G. Mendibil, Xeberri “Kapitalismoak”
04. Imanol “Joan etorrian”
05. Xabier Lete “Kantatzera noazu...”
06. Errobi “Ametsaren bidea”
07. Itoiz “Ezekiel”
08. Txomin Artolaren edozein
09. Hertzainak “Salda badago”
10. Mikel Urdangainen edozein


diskoak

Amnesiac
Radiohead
EMI



Oxfordeko boskote honek mundu osoa harritua utzi du. *O.K. Computer* diskoarekin kritikaren eta entzuleen goraiapamenik handiena lortu eta gero, *Kid A* eta *Amnesiac* diskoekin esperimentaziorako bidea jorratu dute. Iaz Bilbora etorri ziren eta uda honetan ere geurera etorriko dira, hain zuzen ere, Kursalera, hiru egunez.

Guerreros
Najwajeon
Subterfuge



Najwa Nimri eta Carlos Jean berriro elkartu dira Daniel Calparsororen *Guerreros* filmeko musika egiteko. 1998an *No blood* diskoa kaleratu ostean, bakoitzak bakarkako ibilbidea hartu zuen. Oraingoan Najwa abestiak konposatzen aritu da eta Jeanek programazio lanetan; emaitza *Human Monkeys* bezalako hit-a.

Minus
PILT
Metak



Mungiarren laugarren disko hau inoiz baino indartsuago dator. Baina hala ere, ez dute melodia ahaztu. Askorentzat taldearen diskorik biribilena da hau, nahiz eta aldaketa nabarmenak aurki daitezkeen bertan. Hala nola, gitarra apalean David agertzea Txarliren ordeiz. Festimaden Kuraia taldearen hutsunea bete zuten.

Juan Mari Beltrán > euskal musikan aditua

“Sentimendu batzuk adierazteko txalaparta bezalakorik ez dago”



Argazkian, Juan Mari Beltrán

Juan Mari Beltrán euskal musikan mito handia da. Bere izena oso ezaguna ez den arren, donostiar hau gure herriko musikaz gehien dakitenetakoa da. Ikerlea, musikaria eta irakaslea izateaz gain, txalapartari aparta ere bada eta Hernanin urtero egiten den Txalaparta Festaren sortzaile eta bultzatzailea. Duela gutxi disko berria plazaratu du; bakarka egin duen lehena.

—Izen handia lortu duzu euskal musika eta kulturaren munduan. Mundu honek zurekin zor bat duela esan daiteke?

—Kontrakoa esango nuke: zorra nik daukat, herri musikarekin. Nire bizitzak arrazoi bat badu, hori musika dela esango nuke. Nire bizitza horretan oinarritu da. —Hernaniko Musika Eskolan hasierahasieratik ibilia zara eta badira 17 urte. Zelan sortu zen hura abian jartzeko ideia? Eta bide batez, zer dela-eta hasi zineten urtero Txalaparta Festa ospatzen? —Herrian zaletasun handia zegoen eta horregatik sortu zen Hernaniko Txalaparta Eskola. Bigarren ikasturtean ari ginela, ikasleei txalaparta eskolatik kanpo jotzeko zer-bait egitea proposatu nien. Urtean behin txalaparta gustukoa dutenentzako eta talde berriei euren lanak aurkezteko eta jendearen

aurrean jotzeko aukera emateko, topagune bat antolatzea bururatu zitzaigun. —Nola eta zein arlotan hasi zinen musikaren munduan? —Zazpi urte nituen eta Etxarri Aranazen bizi ginen. Gure ama zenak musika ikasi nahi ote genuen galdetu zigun. Baietz esan eta udaletxeko ganbaran zegoen musika akademian hasi nintzen. Klarinetea eta txistua jotzen nituen han. Gero, Donostiara etorri ginen eta hemen Isidro Ansorena txistu maisu handiarekin harremanetan jarri nintzen. Eta txistuarekin jarraitu nuen.

“Nire bizitzak arrazoi bat badu, hori musika dela esango nuke. Nire bizitza musikan oinarritzen da”

—Zure izena txalapartarekin lotzen dugu askok. Zer da zuretzat txalaparta? —Soinu tresna berezia; oso-oso berezia. Begira, lehengoan Jesús Arce txalapartari handiaren hiletan jotzea tokatu zitzaidan. Amaitu nuenean korapilo bi nituen; bat tripetan eta bestea, eztarrian. Egun batzuk pasatu nituen korapiloak askatu ezinik. Baina gauza bat esango dizut; momentu hartan, kanposantuan sentitzen nuena adierazteko txalaparta baino tresna egokiagorik ez dago. —Duela hiruzpalau hilabete, bakarka egin duzun lehengo diskoa plazaratu da: *Arditurri*. Zer dago diskoan? —Disko honek gure musikaren zehar ibilaldi bat izan nahi du. Badaude erritmo zaharrak doinu berriekin nahasturik, badaude doinu berriak soinu tresna zaharrekin. Diskoaren helburua zaharra berreskuratu eta berriturik ematea da. m

Kirmen Uribe

Bizitzen laguntzen duten **olerkiak**



Goian, Kirmen Uribe; ezkerrean, *Bitartean Heldu Eskutik* liburuaren azala




Noiz irakurri zenuen azkeneko poema? Bada, badira osasuntsuak diren ohiturak baina zergatik ez jakin arren, hauek baztertzeko joera izaten dugu. Lantzean behin olerkiren bat irakurtzeak ez dio inori kalterik egiten (irakurri eskuinekoa). Eta kaltea baino, on egingo dizu denon ahotan dabilen Kirmen Uribe idazle gazteak idatzitako *Bitartean Heldu Eskutik* liburuari zure mesanotxean leku bat egiteak. Bizitza bitarte laburra da, eta batzutan, latza. Kirmen Uriberen olerki ederrak bitarte hau hobeto bizitzeko oso lagungarriak dira. m

***Bitartean heldu eskutik*, Susa argitaletxea**
Eskuinean, liburutik hartutako olerki bat


liburuak

Errautsen distira
Xabier Mendiguren
Elkarlanean



Eleberriak Euskal Herriko historia petralarekin korapilatzen diren lau istorio labur biltzen ditu. Alargun batek gerrako pasadizo harrigarri bat kontatuko dio kazetari bati; komentu ilun batean gertaturiko misterioak eta heriotzak argituko dira; Nikaraguako iraultzan egondako gazte bat etxera bueltazten da; bankuko enplegatu batek bere bizitzako nahi eta ezinak gogoratuko ditu...

Aitor Arana
Historia lazgarria
Txalaparta



Istorio gogorrak, latzak eta apur bat nazkagarriak. Aitor Aranaren lan honetan protagonista guztiak nekrofiloak dira eta gaua baliatzen dute erietxeetako gorputegietatik eta hilerrietatik gorpuk lapurtzeko. Egunez berriz, pertsona arruntak ematen dute; gure auzokide, irakasle, senidea edo laguna izan litezke. Estilo arina eta bizia duen lan honek Txomin Agirre Eleberri Saria jaso zuen 2000. urtean.


esaterik**badut**

Esti Ezkerra

Idazle baten esperientzia

Argazkietan baino zahartuxea-go aurkitu nuen Luis Landerok, begi inguruko zimurretan azken bost urte hauetako nekeak pilatu izan balitzaizkio bezala. Berandu hasi zen bera argitaratzen. 41 urte zituen bere estraineko nobelak argia ikusi zuenean —Sari Nazionala eta Kritika saria jaso zituen lan harengatik—, eta ordutik hona ondo baino hobeto eutsi dio zurrumbilo mediatikoari. Haurtzaro eta gaztaro gogorrak izan zituen Landerok: aita bera gaztea zela hil zitzaion, nekazari familia bateko kide izanik lanean jarri behar izan zen berehala... Berak dioen bezala, bere bizitzak *Operación triunfo*-tik gutxi eduki zuen. Hala ere, bere kabuz ikastea erabaki zuen. Irabazten zuen diru apurrarekin etxeko liburutegia osatuz joan zen —berez liburu bakarra zuten etxean—, eta orduantxe deskubritu zuen irakurketaren plazerra. Literaturak dena eman dio Landerori. Sarritan kultura asko goraipatu bai, baina alfabetazio tasa hain altua den honetan kulturak gizabidea zabaltzeko gaitasun gutxi duela aurpegiatzen diote beren bizitza osoan liburu bat ozta-ozta irakurri duten horiek. Eta berak arrazoia dutela erantzuten die, baina berak ez dio kulturari errua egotzen. Literaturaren bidez hain gauza ederrak idatz dezaketen horiek, mundu oso bat liburu txiki batean bildu dezaketen horiek lumarik gabeko oilo bat sortzeko gai direla pentsatzeak hotzikarak ematen dizkio. «Arazoa ez da kultura», esan zidan niri, «arazoa gizakiok gara». Eta beldur hori uxatzeko jarraitzen du gaur egun idazten. Espezie bitxia gara gizakiak. m

webgida



KOMIKIAK
>tira.escomposlinux.org

Espainian komikigile bikainak dira. Ecol-en asteroko komikian Internet eta teknologia berriei inguruko gaiet buruz denetarik esaten da, eta gutxitan ona. Azken finean, ordenadoreen inguruan mugitzen diren *freakiak* ere (kazetari hau barne, noski) euren txisteak behar izango dituzte, ez al da holan? Azken asteetan ingelesezko bertsioa.

Hizkuntza: ingelesa eta gaztelania.

HEGAZKIN TXARTEL MERKEENAK
> www.viajarbajoprecio.com

Inora hegazkinez joan nahi baduzu, bisita ezazu lehenago *site* hau. Hegazkin txartelagatik zenbat diru ordaindu nahi duzun jarri behar da lehenengo, eta gero, txartel hori biltzen dizute, agentziaren batek onartzen badu, jakina. Azken batean, subasta moduko bat da. Esperimentua egiteak merezi du.


Hizkuntza: gaztelania.

TIERRATRAGAME
> www.tierratravage.com

Orrialde hau bidaiatzearekin zerikusirik duten beste *site* askotarako ate moduko bat da. Bertan bidaia baten alde guztiak kontuan hartzen dira: eguraldia, lekuak, txartelak eskuratzeko moduak, jana, aholkuak, irakurgaiak...



Testuak: Iker Merchán / iker@merchan.com



Abiadurarekin irrikitan

ADSL teknologiaren bidez telefono linea arruntetan datuak **azkar** mugi daitezke

Urteetan esan digute gure etxeko telefonoak zaharkituta gelditu direla. Nahiz eta aurretik betetzen zuten funtzioa oraindik ere ondo baino hobeto bete (argindarraren beharrik gabe ahotsaren bidezko komunikazio ahalbidetu). Interneten abiadura handiak lortzeko ez zutela balio zioten. Baina, hara non agertu den teknologia berria, merkea eta eroso gaur eguneko telefono sareaz baliatzen dena. Bere izena? ADSL, eta hilean gutxi gora-behera 40 euro ordainuz abiadura handiko Internet

eskaintzen duena, nahiz eta asteko zazpi egunetan 24 orduz konexioa zabalik mantendu.

Gainera, sarean nabigatzen gauden bitartean telefono deiak egin eta jaso ditzakegu. Edonon jar daiteke ADSL? Konpainia telefonikoari galdetu behar zaio gure etxera teknologia hau heldu ote daitekeen, baina gure inguruko gehienetan jar daiteke. Hori bai, kontuan izan 40 euro asko direla, eta ez dela komeni ordu askoan nabigatzen ez baldin bada. m

Zer ote da? Zipa

Dokumentu konprimituen artxibo mota


Edozein dokumentu digitalet tamaina bat izaten du, hori bai, ez da gauza bera testu arrunta duen orrialdetxo bat edo kalitate handiko bideo luze bat. Zorionez, gaur egun etxeko ordenadoreetako disko gogorretan ez da leku faltarik sumatzen. Arazoa normalean edozein dokumentu leku batetik bestera mugitu nahi dugunean agertzen da, zeren eta oso handia baldin bada diskete batean sartzea ezinezkoa suertatuko zaigu, agian, ez dugu CD grabagailurik izango (CD batean informazio mordo sartzan da) eta Interneten dugun abiadura oso motela izango da (beraz, minutuak eta minutuak beharko genuke dokumentu hura sarearen bidez helarazteko).

Zer egin orduan? Dokumentua konprimitu edo txikiagotu. Zenbait programen bidez (ZIP formatua sortzen dutenak, adibidez) dokumentuen tamaina txikiagotu daiteke, hori bai, dokumentua berriro ere erabiltzeko, beharrezkoa da programa bera ostera ere erabiltzea dokumentua aurreko egoerara itzularazteko.

Zein programarekin konprimitu dokumentuak? Winzip (www.winzip.com), dohainik froga daiteke.

aurkitudugu


Irudi bitxiak



Interneten irudi harrigarriak edo barregarrik topatzen baduzu, bidali UKra. Interesgarrienak aldizkarian hilabetero argitaratuko ditugu. aldizkaria@euskalnet.net

Honezkero 50 KZgune

zabaldur dira Euskal Autonomi Erkidegoan



Argibide gehiago: www.konektazaitz.net

Proiektu hau 2001eko uztailean jarri zuen martxan Eusko Jaurlaritzak eta izan duen arrakasta itzela izan da, ia 30.00 lagunek erabili baitute zerbitzu hau. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 41 udalerrian zabaldur berri diren 50 KZgunek prestakuntza eta Interneten debalde nabigatzeko aukera eskaintzen diete behar hori daukatenei. Gogoratu behar da gure eskualdean ia herri gehienetan badirela honelako guneak, eta ez direnetan laster zabalduko direla, esaterako irailean Berango edo Erandion.



Jokoak sarean ¥
Txapelketak ¥ Internet ¥
Txat ¥ E-mail ¥ Lanak ¥

ETA AURRERANTZEAN

ordenagailuen zerbitzu teknikoa

Zubigane, 5 - 48600 SOPELANA
e-mail: 01sopelnet@terra.es
www.geocities.com/sopelnet

% 94 676 00 62- Fax:94 676

Ibilaldia 20

eskerrik asko
guztioi



SAN NIKOLAS Ikastolak, aurtengo Ibilaldia 2002ren antolatzaile izan den aldetik, Getxoko biztanle guztiei eskerrak eman nahi dizkie eskainitako laguntzagatik. Hori gabe ezin izango zen burutu tamaina honetako ekimenik. Eskerrak baita, hainbesteko jendetza biltzen duen ekitaldiarekin batera datozen eragozpenen aurrean erakutsitako jarrera onagatik.

IBILALDIA 2002ren arrakasta handia ez zen lortuko, Getxoko herri-tar, instituzio eta erakunde guztien laguntza barik, beraz, den-denak zoriondu nahi ditugu horregatik.

Hala ere, tamalgarritzat jo behar ditugu, herriko guneren batean, herritarrek jasan behar izan dituzten eragozpenak edota kalteak, nahiz eta gure aldetik egin den esfortzua handia izan, ekidin ezinak izan direnak bestalde. Gure kasuan bezala, Ibilaldi batek hainbeste pertsona biltzen den edozein ekimenetan gertatzen diren gorabehera batzuk, ekidin ezinak izaten dira gehienetan, nahiz eta antolatzaileek ahalegin guztiak egin horrelakorik gerta ez dadin.

SAN NIKOLAS IKASTOLA

Krus de Gorbea gure gaseosie!

Gaseosa **famaturik** badago Euskal Herrian, hori, Krus de Gorbea da. Edaria bera, zein promozio kanpaina **gezurrezkoak** izan arren, iragarki **barregarri** hauek ospe handia lortu zuten. Gaur egun, Internet-eko hainbat orrialde eta ataritan aurkitu daitezke.



Txemi del Olmo, iragarki hauen sortzailea

1995ean gaseosa faltsu baten irrati-iragarki barregarriek ospe handia lortu zuten Euskal Herrian. Ordutik oso ezagunak egin dira Internet-en botereari esker eta gaur egun internauta gehienek iragarki hauek inoiz entzun dituzte. UK aldizkariak "kanpaina" berezi eta dibertigarri honen egilea aurkitu du. Bere izena: Txemi del Olmo, Leioakoa.

Gaur egun Txemi del Olmo bikoizketa aktore eta informatika irakaslea da Basaurin baina hori baino lehen irrati gizona izana da. Besteak beste, Ser eta Onda Cero irrati kateetan lan egin du esatari moduan eta bera da *Krus de Gorbea* iragarkien asma-tzaile eta sortzailea. Gezurrezko iragarki hauen gainean gehiago jakiteko berarengana jo genuen.

—Kazetaria eta irrati esataria zara; tipo serioa beraz, zelan bururatu zitzaizun irra-ti-iragarki hauek egitea?

—Garai hartan nik Onda Cero-n egiten nuen lan eta nire denbora librean, beste

edozein gauza egin beharrean, irrati-iragarki hauek grabatzea otu zitzaidan. Horrela hasi zen, denborapasa moduan.

—Ideiaren aita bakarra zu zara, ezta?

—Ideia laguntaldean sortu zen. Lagunok sarritan egiten genituen euskaldunen imita-zio sinpatiko hauek eta ni plazaratu zituen baina ez nintzen izan; ahotsa jarri nien Josu Basañezen laguntzarekin.

—Noiz izan zen hau?

—Sortu, 1995ean sortu genituen baina 1997 arte ez genituen ezagutzera eman. Or-duan Interneteko txat batean jarri nituen. Geroago, lagun batek sareko atari batean ipini zituen eta handik aurrera, Internetek

edozein mezu zabaltzeko daukan indarrari esker oso ospetsuak egin ziren laster. Gaur egun, atari askotan entzun daitezke. Horrez gain, Iñaki Gabilondoren *Hoy por hoy* saioan, Gomaespuma taldekoan edo *Lo mas plus* telebista saioan jarri izan dituzte, eta badakit Mexiko eta Estatu Batuetako inter-nauta askok ere ezagutzen dituztela.

«Besteak beste, Iñaki Gabilondoren Hoy por hoy saioan, Gomaespuma taldekoan edota Lo mas plus telebista saioan entzun ahal izan dira iragarki hauek»

—Espero zenuen lortutako arrakasta?

—Inondik inora! Denbora pasatzeko baino ez nituen egin. Eskubideak ere, ez nituen erregistratu garesti xamar baita eta produk-tua txantxetako delako. Jende asko horretaz aprobe txatu da. Batzuk eurak eginak balira bezala bezala aurkeztu izan dituzte hortik eta aipatu nahi ez dudana telebista saio kaxkar batean ere kopia lotsagarri bat egin zidaten.

—Baina *Krus de Gorbea* ez da benetako produktua...

—Ez, ezta benetako produktu baten parodi-arik ere. Izen barregarri baten bila gen-biltzan eta hau ateratu zen.

—Sketch gehiago ateratzeko asmorik badarabilzu?

—Agian, baina ez da epe laburrean dauka-dan helburua. Hala ere, produktu hau eza-gutarazteko sortu nuen web orrialdean irra-ti-iragarki berri batzuk ere jarriak ditut. ^m

Iragarki hauek entzuteko:
www.agoronet.es/infotec/gaseosa




Aldizkariaren promozio iragarki bat. Behean, azkeneko alearen azala eta argitaratutako komiki bat.

The balde 0 euro


Euskaraz eta ingelesez plazaratzen den **joera** aldizkariaren laugarren zenbakiak **argia** ikusi berri du

Literatura, fashion, artea, videogames, umorea... hauek dira besteak beste *The Bal-de* aldizkariak jorratzen dituen gaietako bat-zuk. Agerkariak (euskaraz eta ingelesez ida-tzia) gaur egungo diseinu erakargarria eta edukiak ditu ezaugarri nagusiak. Izenak dioenez, *The Balde*, debalde banatzen da, bi hilabetero. Iaz Durangoko Azokan aurkeztu zuten *The balde* aldizkariaren lehengo alea. bertan ospatu zen jaian. Aldizkaria gazte heldu eta hiritarrei zuzenduta dago eta beste lekuetan hain hedapen handia duten joera edo tendentzia aldizkarien hutsunea bete du




gurean. Iñigo Martínez editoreak esan digu-naren arabera oso harrera ona izan du; *"Jen-dearen erantzuna, espero genuena baino hobea izan da. Lehenengo aleak inakurleak harritu zituen; diseinuagatik eta doakoa delako. Gurea ez da Euskal Herrian debalde banatzen den aldizkari bakarra baina gehienak herri aldiz-kariak dira, gurea beste produktu bat da."* ^m

Harremanetarako: www.thebalde.net



Kioskoa Elhuyar aldizkaria

zientzia eta teknika
guztion eskura



Zientzia eta jakinminak tentatzen ba-zaituzte, *Elhuyar* da zure aldizkaria. Eus-takio Arrojeria Eguskitzak zuzentzen duen hilabetekari honek gai ugari jorratzen ditu, bai bere orrialdeetan eta baita bere edizio digitalean (www.zientzia.net/elhuyar): berri zientifikoak labur-labur azal-duta, bitxikeriak, asmaketa berrien berri, osasuna, medikuntza, fisika, dietetika, informatika, espazioa... Guztia modu argi eta ulergarrian azalduta. Honez gain Elhuyar-ek elkarriketak, denbora-pasak eta hain zientifikoak ez diren beste atal batzuk ere eskaintzen ditu. Interesgarria bezain arina, aldizkari zientifikoa izan arren, Elhuyar ez dago soilik adituei zuzenduta. Esan bezala, irakurtzeko erra-za da, euskara dotorean idatzita dago. Gustura irakurtzen da. ^m

Elhuyar kioskoetan salgai: 4 euro
Harpidetzak: elhuyar@elhuyar.com
www.zientzia.net

Balkoiak eta bertsoak

Zer dute komunean (barka, baina Euskaltzaindiak derrigortu gaitu saskelkeria honetara) balkoiak eta bertsoak? Bada, berba biak “b” letraz hasten direla. Bestalde, bi-biek “loreak” bil ditzakete euren baitan, batek zentzu botanikoan eta besteak zentzu literarioan. Eta bigarren azalpen honen ildotik, esan dezakegu balkoia eta bertsoa loturik egon zirela antzina, balkoia bera komunikabide emankor gertatzen zen garaian, hain zuzen ere.

Testuak eta argazkiak: **ALBE**

Historiari begira

1902. Gipuzkoako plaza. “Gipuzkoan aurki zitezkeen lau bertsolari onenak eraman zituzten Tolosara 1802. urteko inauteriaren azkenengo arratsaldean: Zabala, Fernando, Txabalategi eta Altamira, lauak letra bat bakarra ere ezagutzen ez zutenak.

Plaza Zaharreko baranda banatara igorrik, arratsalde guztian kantatu zuten bi-bitara. Hain atsegin handikoa izan zen arratsalde gogoangarri hura, ilundu eta gero ere, deiadarka zeuden entzuleak, aurrera ere kanta eragiteko, eta uste dut baldin eguna zabaldu arterainoko guztian ere ari izandu balira kantari, ez zela aldenduko entzuleen artekorik ere.”

Ikusten duzuenez, balkoitik kantatzeko ohitura ez da atzo goizekoa, ez horixe!

Gure balkoikadak

ALBEkook aspalditxotik genbiltzan balkoitik kantatzeko ohitura zahar hori gaurkotzeko eta gureganatzeko asmotan. 1999an gauzatu genuen ametsa. Algortako San Nikolas plazako balkoi banatatik kantatu zuten Andoni Egañak eta Sebastian Lizasok. Jende asko batu zen ikuskizunetik asko zeukan entzukizun hartara. Handik urte bira, 2000.ean alegia, Algortako Portu Zaharrera aldatu genuen eszenatokia eta orduko hartan Maialen Lujanbio eta Jesus Mari Irazu aritu ziren bertsotan erritmo ikaragarri bizian. Iaz Igor Elortzak eta Jon Maiak dotore eman zioten segida honezkero Portu



Goian, Igor Elortza *Peresiena* etxeko balkoitik kantari; behean, Jon Maia sasibalkoitik.

Zaharrean finkatu den ekitaldi bereziari. Ekitaldiaren bigarren zatian, balkoietatik jaitsi eta jendartean ibili ziren bertsotan Igor eta Jon, kablebako mikrofonoaren laguntzaz, hemen ziri eta han barre.

Honezkero, egundoko ikusmira sortu du bertso jardun zaharberritu honek eta aurren, aurreko urteetako bertsolarien mailari eutsiz, goi mailako bertsolari bi izango ditugu kantari Portu Zaharreko balkoi banatatik: Unai Iturriaga eta Aitor Mendiluze. Eguraldiak laguntzen badigu, bertsoaio ahaztezina izango da ordukoa, baina

euria botatzen badu, are ahaztezinagoa izango da, bertsolari izar bi euripean kantari ikustea ez baita eguneroko kontua. m



«Aurren Unai Iturriaga eta Aitor Mendiluze arituko zaizkigu bertsotan Portu Zaharreko balkoietatik»



Iturria: XDZ / Argazkia: Joseba Elosegui

Solaskidearen SOSLAIA

Ondoko test erako galderei zuzen erantzunez gero, Amets Arzallusi buruzko xehetasun batzuk jakingo dituzu.

1) Zenbat urte ditu Amets Arzallusek?

- a) Hamazortzi
- b) Hogeita bat

2) Zein da Ametsen bigarren abizena?

- a) Antia
- b) Aire

3) Non munduratu zen gure Amets?

- a) Donibane Garazin
- b) Donibane Lohitzunen

4) Non bizi da gure protagonista gaztea?

- a) Hendaian
- b) Baionan

5) Bertsoez gain, zein zaletasuni eutsi dio Ametsek egungo egunera arte?

- a) Futbolari
 - b) Pilotari
- ### 6) Zein ikasketa egiten ari da gure gaztea?
- a) Kazetaritza
 - b) Zuzenbidea

7) Zenbatetan lortu du Amets Arzallusek Nafarroako txapela?

- a) Hirutan
- b) Zortzitan

10ekotxikian Amets Arzallus

1) ‘Amets’ berba zeure errimategi propioan duzu, ala sistematikoki baztertzen duzu?

‘Amets’ ez, baina ‘ametsa’ askotan ateratzen zait.

2) Zer zara, Amets, heldu gaztea, ala gazte heldua? Umea, gaztera heldu gabea.

3) Zer sentitzen da 2002ko Nafarroako txapela janztean? Poza eta gerorako ilusioa eta indarra.

4) Zer da Sustrai Kolina zuretzat, adiskide ala lehiakide? Beti kidea.

5) Zer erantzuten diezu zure lehenengo abizenarekin txiste erraxa egiten ausartzen direnei? Ni ez naizela Arzallus Antia, AntiArzallus baizik.

6) Iparraldearen ordezkari sentitzen zara hegoaldean, edo iparraldea ahaztu egiten zaizu hegoaldean bertsotan zabiltzanean.

Nahiago dut ni bezala agertu eta ez inoren ordezkari moduan. Nongoa naizen inoiz ahaztu gabe, hala ere.

7) Zelan daramazu zeure gaztean bertso erritmo bizian bizi beharra? Ongi.

8) Zer esango zenioke bertsolari serioegia zarela esaten dizun bati?

Ez nukeela nahi hala izatea, baina agian batzuetan arrazoi du

9) Zer jaso duzu, bertsogintzari dagokionean, zeure aita Jesus Arzallusengandik, eta zer jaso du berak zugandik?

Aitarengandik nik dena jaso dut. Eta berak nigandik zer jaso duen berari galdetu beharko zaio.

10)Algortako Bertsolari Eskolako Paiatarrak aspalditik ezagutzen dituzu, batez ere Fredi. Zer deritzozu Paiatarren bertsolari ibilbideari?

Zaila da etxe beretik bi aurrera ateratzea, baina geroan zere handia emango dutela uste dut.

Bertsogenda

BALKOITIK BALKOIRA
Ekainak 21. 22:00. Algortako Portu Zaharra. **Unai Iturriaga** eta **Aitor Mendiluze**.

BERTSO JAIALDI MUNDIALA
Uztailak 10. 22:00. Algortako Bihotz Alai plaza. **Andoni Egaña**, **Maialen Lujanbio**, **Aitor Mendiluze**, **Jon Maia**, **Sustrai Kolina** eta **Unai Iturriaga**.



Josu Esnaola gai emaleak dotore gidatu zuen zortzi bertsolarien lana.

BEGI-BELARRI

Getxoko bertso eguna 02

Maiatzaren 11 egun berezia izan zen Getxoko eta inguruko bertsozaleentzat. Bertso ekitaldi nagusi bik eman zioten egunari berezitasun hori: Goizeko **BERTSOLARI GAZTETXOEN JAIA** eta arratsaldeko **IPAR URIBEKO BERTSOLARI TXAPELKETA**, biak San Nikolas ikastolan eta **IBILALDIA 02**ren harian. Eguerdian bazkari gogoangarri bat ere egon zen, baina bazkari hartako argazkirik ez daukagunez, ekitaldi nagusi bietako erretratuen bidez egingo dugu egunaren errepasoa.

Argazkiak: **Andoni Crespo Astobiza - ALBE**



Jon Lopategik izkina batetik jarraitu zuen saioa. Azken agurretan laudoriorik ere jaso zuen.

IPAR URIBEKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Aurtengo Ipar Uribe Txapelketak goi asko jo ditu: parte hartze handia, maila ona, erritmo bizia, arpegi eta leku berriak, antolakuntza egokia...

Laburbilduz, Ipar Uribe bertso eskualdea Uribeko iparra izateaz gain, Bizkaiko bertsogintzako ipar izaten hasi da. Txalo beroak, beraz, lerro hauetatik, iraultze prozesu horretan parterik izan duten guzti-guztiei.



Bigarren lotu zen Xabier Paia estu hartu zuen Etxahun azken unera arte.



Miren Loizagak hirugarren egin zuen, oso maila eta erritmo onean kantatuta.



Asier Legarreta eta Josu Landeta beteranoek saio freskoa egin zuten.



Etxahun Lekuek bere ohiko maisutasunez bideratu zuen saioa eta ondo merezitako txapela jantzi zuen.



Epaile taldeak profesionaltasunez puntuatu zuen saioa.



Jendea polito batu zen Ipar Uribeko finalera.



Irudimenik eta zalotasunik ez zen falta izan gaztetxoen bertsoetan.



ALBEko begiraleek fin-fin jardun zuten haurrei bertsoa osatzen laguntzen.

BERTSOLARI GAZTETXOEN JAIA

Aurtengo ekitaldia San Nikolas ikastolarekin batera antolatu du ALBEk, IBILALDIA 02aren ingurumarian.

San Nikolaseko saskibaloizelaian hurrek txandan-txandan kantatu zituzten euren bertsoak. Gero, hamaiketako eman zitzaizen bertaratutako guztiei.

Haurren parte hartzearen ostean, Fredi Paia eta Maialen Lujanbio bertsolariak aritu ziren bertsoan, Joanes Igeregiren agindura. Saioa bizi-bizia eta ona izan zen eta umeak konforme lotu ziren.



IBILALDIAren aldeko bertso asko kantatu zuten gaztetxoek.



Fredik eta Maialenek hainbatetan hartu zituzten ahotan bertsolari gaztetxoak.

HIRUSTA



Bertsojartzailea: **Jagoba Pereda**

Gaia: **Ipar Uribeko Txapelketa 02**

Doinua: **Leiho ertzetik**


1
Artxubin Ipar Uribe aldeko Txapelketan lehen eskaintza, nahiz eta euritan zegoen eta eguna zen nahiko hitsa; gure ahalegina egin genuen bertsoan moldatzen hitza, Gotzonen gaiak baldintza, jendean txaloak giltza; (bir) zeruak ere eskertu zuen esanez “ondo dabilta”, bertso saioa bukatu ostean baretu baitzen ekaitza. (bir)

2
Gatikakoa gutxi izan bazen beste zortzi bertsolari Lezaman kanta egiteko prest bildu ziren oso adi; entrenatuta gogo bizian, mikroan ahotsa garbi, eutsiz edozein lanari ibili ziren kantari; (bir) kanporaketa honetan ere ikusi zen oso argi Ipar Uribe badaukagula bertsolari onen kabi. (bir)

3
Getxoko Bertso Egun horretan errematea itzela, final handia ezin genuen ospatu hemen bestela; Xabik ta Etxahunek argi utzi zuten hemengo onenak direla, baina adi ibil daitezela, hobera doa nibela. (bir) “Gekko eskola”ko bertsolarientzat lehen txapelketa zela ta bi urte barru gure eskuetan egongo dela txapela. (bir)

Joseba Uribe

Errebistako aurreko senbakin trikitixaren ingerun eon giñen berbetan pandero yoten euen Manuel Ugartegas. Oingoan kañaberayole bat dakargu, Urdulisen yaio ta Askorrin bixi dan Joseba Uribe, ain susen be. Ona amen musikeri burus konta doskusen gausetariko batzuk.



Erretraratuan, Joseba Uribe eskuetan kañabere bategaz

Testua: Urtzi Iglesias
Erretratua: Asier Mentxaka

—Nongo sara su, Joseba?
—Urdulistarra nas. An jaioko, an jaio nintzen otamarren julion laun, ta amabi urterarte. Amabi urtetik etor nintzen ona Getxora, Askorrire.

—Nos asi sintzen kañabere yoten?
—Sortzi urterik yoten dot nik kañabera. Amana etorten san bat kañabera yoten; ta nik: “nola deko eintte ori kañabera?”, ta yon nintzen solora, in neun kañabera, txarto in nendun baia bueno nere modure, ta asi nintzen yoten. Nire lagunek gitarrea ta nik kañabere; tin-ton tin-ton. Ta or etorten da bosgarren illebeten ta: “Felisa! Es yo esebere se nire semek su baño obeto yoten dau”. Nik koiu bere kañabera, ondo inye eukintte, ta bera baño obeto sortzi urtegas. Ta gero geiau es sen etorri. Ta ordurik, etorten siren soñugas ta benga Joseba leña! ta orduri beti. Nire afisiño ori ixen da, kantau bebai; ya bosa dekot apurtxu bet jodidute baia kanta be ondo jotak eta; dane eh? tangok... dusti, bardin da kañaberas. Ta soñuas ederto, baia soñu bear du, soñu bet topa bear du ortik yoteko.

—Ez sendun bikoterik ixeten?
—Gatikeko mutil bet, Lopategi, yoten soñu, ta areas yoten neun nik. Ederto itten eun, a konkursotan bere yon san soñu yoten ta buuf! Ta olan: “Joseba yoango gare ara, ta benga ba!”

—Seuk eiten dosus kañaberek?
—Neuk iten dodas, ointxe ein dodas iru,

kotxean dekodas beti. Urdulisen ein nendun lelango kañabere neuk; koxi kutxilloa, yon solora, koiu kañabera bat ta danba! Abilidade itzelas. Kañaberari ein bear dako ebegi emeti erdi erditi, apurtxu bet... korputz txikiao emon albo bateri ta gero rebajau. Ointxe ein dodas onek.

—Kanta elegante eiten dosu, esta?
—Nik ein dot kanta gustues. Ulek pere olan jenteri imintsetas nik. Lengo egunen,

mundu onetan, ondo kanta dot nik, eskandalu! Oiñ ya es nas yoten.

—Beste musike tresnarik badakisu yoten?
—Bai, nik pandero yoten dot, eta amen bere (mai ganen) eskues, edosein gause... bai, pandero ondo bere bai, ta soñu aoako bere bai, ta gitarre. Nik badekot soñu bet, akoplaten dot olan adar bateas, ta gitarrea soññues, edota soññues kañabere. Kollarakas bere bai yoten dot nik; kollarak fasillak, au

“...gisonak ikuseusten kañaberea ta
“usted es artista, usted artista” ta nik
diñot “juergiste bai, baia artiste es”

egoen bat, ta jotak kantaten asi nintzen ta an morroia: “si me estas poniendo los pelos de punta!, como puedes cantar las jotas así!”, jotak... elegante botaten dot nik. Jotak, tangok bere igual, rantxerak itzelak, bolerok... Bakisu, nik ondo kantaten dot apurtxu bet alegre gausenen, oiñ otzen-otzen es, ostabere...

(kañabere) da difisillau. Nik ein dodas igual umentzako berreun kañabera bai, baia pentsa bes, arrima bes, yo bai baia ori es da esebe, onek musika euki bear dau. Igual belarri ona bakosu, es datzu kostauko asko ikesten yoten. Niri beti gusta dat musike, umetarik. Ta dana belarriti; aoko soñu ta gitarre bere belarriti.

“Nik konkursok irabasi dodas
kantaten...! Bai gisona; mundu
onetan, ondo kanta dot nik,
eskandalu! Oiñ ya es nas yoten”

—Konkursotan eon sara?
—Jotak bai. Amen Getxon, Andra Mariyen umetarik, jotak, *concurso de jotas* ta bat etorten san ona, leiostar bat, “Baltza, el negro” esateutzen ta: “cagüen ros, ya ha venido Uribe ya me va a joder”, jotak kantau nik... emen, Santurtzin, Barakaldon, Berrisen, Deuston... joe! Nik konkursok irabasi dodas kantaten...! Bai gisona;

—Trikitixa eta parranda bata besteagas lortuta doas?
—Bai. Juerga itzelak! Pasadan urten, Askorrin, juerga eitten geuntzon ta ni kañabere yoten ta jente yantzan. Ta etor san autobus bat, Galisiti ona etor siren, ta gisonak ikuseusten kañaberea ta “usted es artista, usted artista!” “tu con nosotros de gira” ta nik diñot “juergiste bai, baia artiste es”... m

Gurberbakeren 11 BERBA JATOR BATZUK? (IV)

Testua: Xabi Bilbao

Zorionak, górantzik eta beste agur batzuk zelan esan.

Zorionak émoteko:
—Zoriónak!
—Májo iñ dozu!
—Ederto egon zara!
Suerte ona opéztiteko:
—Ondo ibilli!
—Aukíxu(e) suerte ona!
—Ondo pasa (yáiek, gabónak, etab.)
Górantzik émoteko:
—Emon górantzik aitxeri ta amari.
—Górantzik nire partez zure andreri.

Erantzunek:
—Bai, émongotzetaz górantzik.
—Bai, zure partez.
—Yáten dauneri ésateko: ónegin!
—Erantzune: eskerrik asko (eta bardin!)
Géla baten sártuteko:
—Sartu leite?
Erantzunek:
—Bai, áurrera!
—Bai, sartu bildur barik!
—Itxédoixu apútxu betén!

Presentasiñok íteko:
—Ni Andoni naz / Nik Andoni dekot ixena.
—Ta hau nire andre da, Begoña.

Erantzunek:
—Ederto.
—Póztuten naz.
—Auki dot gáne zu(ok) ezétuteko.
—Urte askotarako.

Adibidek:
—Egunon! Sartu leite?
—Bai gixona! Aurrera bildur barik!
—A! armósaten topa zatudez: ónegin!
—Bai, eskerrik asko! Ez lotu hor zútunik, yarri zateze gu(g)ez.

—Ba, hara, ni Gorka naz, administradore barri. Ta au nire alabe, Maitane.
—Ederto, zelan zauz Maitane, auki dot gáne zuiokaz berba íteko.
—Zu Gorka Zabalondo zara ordun, ezta? Pedro Zabalondon seme.
—Bai, hálantxe naz.
—Ba lagun hándik ixen gintzezen zure aítxe ta biok: górantzik emon ber dotzezuz.
—Bai, zure partez.

Euskara ikasi dute

Leire Astorkitza



Leire Astorkitza Algortakoa da, 30 urte ditu eta, nahiko kostatu zitzaion arren, gaur egun euskaldun peto-petoa da.

—Noiz hasi zinen euskara ikasten?

—U! 15 urteekin euskaltegian hasi nintzen baina lehenago ere partikularra joaten nintzen ere.

—Eta bukatu?

—Bukatu, inoiz ez da bukatzen, baina EGA 1997an atera nuen. Irakaslea izateko asmoa neukan baina karrera eskatzen zuten eta ezin izan nuen lortu.

—Non ikasi zenuen euskara?

—AEK-ko Ganbara eta Lauaxeta euskaltegietan.

—Zergatik han?

—Nire ahizpa AEKn zegoen eta gustura. Horregatik hasi nintzen. Geroago eskolak emateko era egokia iruditu zitzaidan eta horregatik jarraitu nuen.

—Zerk bultzatuta ikasi zenuen euskara?

—Betidanik izan dut gustukoa. Arrazoi gehiagorik ba al da?

—Zer da gehien kostatu zitzaizuna?

—Aditzak batez ere.

—Zein da garai hartako zure oroipenik onena?

—Egin eta sendotu nituen harremanak ikasle zein irakasleekin. Lagun handiak egin nituen.

—Gaur egun euskara erabiltzen duzu?

—Ahal dudan guztian; lagunekin, lanean, nire lobekin...m



Argazkian, herriaren sarreran dagoen kartel zaharra

Sopela ala Sopelana

Zein da zuzena? Zelan idatzi behar da? Sekula amaituko ez den **ikamika**

Urteak joan urteak etorri eta herriko biztanleen arteko eztabaida historiko honek ez zuen bukaerarik. Batzuek Sopela esaten dute, udalaren jarrera ofizialak, berriz, Sopelana idatzi behar dela dio. Zalantza hau argitu nahian eta eztabaida luze honekin bukatzeko asmoz, UK-k, azkeneko alean, ikerketa sakona egin eta ondo oinarritutako informazioa eman zien bere irakurleei. Baina ikamikarekin amaitu barik, dirudienez, eztabaida berpiztu eta handitzeko baino ez du balio izan guk idatzitakoak. Beraz, polemika honekin behi-betiko bukatzeko, berriro ere Euskaltzaindira jo dugu. Euskal hizkuntzaz arduratzen den erakunde ofiziala izanda, beraiek esandakoa erabatekoa izatea espero dugu. Eskatutako azalpenak Euskaltzaindikokide den Peio Telleriak eman zizkigun. Berak esandakoaren arabera eta *Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle-entitateak* izeneko liburuak dioen bezala, herriko izen ofiziala

Sopelana da, bertakoei sopoloztarrak deitzen zaie eta euskal izena Sopela. Hala ere, Telleria jaunak argi utzi nahi izan zigun Euskaltzaindiak ez duela inolako ofizialtasunik emateko ahalmenik. *“Hori udal bakoitzari dagokio. Guk euskaraz zelan esaten den baino ezin dezakegu esan”* azaldu zigun. *“Hala ere, nik ez dut uste Sopelana txarto esanda dagoenik. Biak zuzenak direla esango nuke”* adierazi zigun. Beraz, ikamikak jarraituko du. m



Euskararen kale

erabilerak, gutxi bada ere, **gora** egin du Getxon

Lau urterik behin egiten den legez, joan den azaroaren 7an eta 10ean, Euskal Soziolinguistika Institutuak (SEI) ikerketa lan handia egin zuen Euskal Herri osoan euskararen kale erabilpenaren maila neurtzeko. Getxon, aipatutako egunetan 20 bat lagunek entzunaldiak egin zituzten herriko auzo ezberdinetan. Jendea zein hizkuntzatan egiten zuen berba entzuten zuen neurtu zuten. Emaitzak, nahiko genituzkeen bezain onak izan ez arren, onak dira orain dela lau urteko emaitzen aldean. Orduan erabilpena Getxon, orotara ehuneko hirukoa izan zen, oraingoan berriz, ia ehuneko bostekoa izan da. Nahiko genukeena baino askoz gutxiago, noski, baina apurka-apurka bada ere gure hizkuntzaren erabilpena gora doa. m

Getxoko auzoen artean, Algortan entzuten bide da euskara gehien kalean



Udan euskara ikasteko

eskaintza zabala prestatu du AEK-k

Uda honetan ere, AEKn onena lelopean, urtero bezala, aurten ere, oporretan euskara ikasteko aukera eskaintzen du Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak. Udari begira ikastaro trinko eta barnetegi eredu ugari antolatu ditu AEK-k. Eskaintza zabal hau bi eredu nagusitan banatzen da; ikastaro trinkoak eta barnetegiak. Betiko ikastaro hauez gain, AEK-k beste kurtso berezi batzuk eskainiko ditu; familientzako barnetegiak eta barnetegi ibiltaria, besteak beste. Apuntatzeko epea ekainean zabaldu da. m

Argibideetarako: 94 415 95 12

[baicomment]



APURKA apurka gero eta merkatari gehiago animatzen ari da euren errotulazioa euskaraz ere jartzen. Oraingoan Lurkoi dietetika dendan jarri dugu begirada.

Lurkoi, J. B. Zabala kalea, Algorta

[nocomment]



Algortako Sarrikobaso auzoan ikusi dugun pintada hau deigarria iruditu zitzaigun.

EUSKARA IKASTEKO

MATERIAL BERRIAK SORTU

DITU HABEK

Ume euskaldunen gurasoen euskara maila hobetzeko eta erabileran laguntzeko, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundeak (HABE) material berriak sortu ditu. Sortutako material didaktiko hau guztia bi multzotan banatzen da: *Gurasoak* heziz saila euren euskara mailarekin konfiantza handirik ez daukaten gurasoei zuzenduta dago, *Gurasoak lagunduz* saila berriz, seme-alabei etxeko lanak egiten lagundu nahi dieten gurasoei begira prestatu dute. Ikasmaterial berri honen oinarria benetako testuak eta irrati eta telebistako elkarrizketak dira. Sail bakoitzak 10-15 bost ikastunitate ditu.

Material hauek eskuratzeko zein argibideetarako:
94 464 62 99 edo www.habe.org



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Antxoak

kazolatxoan

Antxoaren sasoi bete-betean gaude. Aurtengoa, entzun dugunaren arabera, oso kanpaina txarra izaten ari da gure arrantzaleentzat. Ea datorren urtekoa hobea den! Antxoa hamaika modutan presta daiteke: binagretan, albardatua... Edozelan ere, beti gozo. Gaurkoan, antxoan kazolatxoan proposatzen dizuet; errezeta erraza eta edozein gonbidaturen aurrean sukaldari onaren itxura emateko baliagarria. Hasteko txikitu berakatz ale batzuk eta gindilarekin batera, oliba oliotan sutan ipini. Berakatzaz urreztatatu baino lehen, bota basokada erdi ozpin eta ardo zuriko beste bat. Olioaz berotutakoan, bota antxoak (800 gramo, buru barik eta triapak kenduta) eta perrexil apur bat. Itxaron bost minutu eta mahaira!

osagaiak (bi lagunentzat)
800 gramo antxoa • berakatz • gindilak • basoerdi ozpin
basoerdi ardo zuria • oliba olio • gatz



itsaso arana / jolastoki-koa

Puntako ardoak

sumillerrek aukeratutakoak

Sumiller 2002 lehiaketa antolatzen duen “Vino y gastronomía” aldizkariak, Espainiako ardorik onenak sailkatzeko dastapenak antolatzen ditu. Horietako bat Gasteizen egin zen joan den maiatzean. Parte hartzaileak Aragoi, Nafarroa, Errioxa eta Euskal Erkidego Autonomoa izan ziren eta babesleak Brandy de Jerez, Orujo de Galicia, Osborne, UAES, Vinos Herederos, Marqués de Riscal, Turismo Castilla-León, Iberia, Altadis, Centro de Turismo de la Comunidad Valencia. Sailkapen hauek Espainia osoan zehar egiten dira eta aukeratutako ardo guztiak Madrilan egingo den finalean egongo dira. Berton dastazailerik onenek erabakiko dute zeintzuk diren 2002ko ardorik onenak. Azpian dituzue Gasteizen aukeratu zirenak:

Ardoak	Bodega
200 monges 1996 (Errioxa)	Vinicola Real
Amaren 1998 (Arbako Errioxa)	Luis Cañas
Blecua 1998	Blecua
Capricho de Goya	Camilo Castilla, S. A.
Colección privada 1999 (Errioxa)	Sierra Cantabria
C. de Salceda 1998, (Ar. Errioxa)	Viña Salceda
Faustino de autor 1995 (Ar. Erri.)	Faustino
Gran Vos 1998	Viñas del Vero
Margalló 1999	Jane Ventura
Mas de Masos 1999	Celler Capofons Ossó
Mas D'en Pol 2001	Vinyes y Cellers Clua
Merlot-Merlot 1999	Viñedos de Altoaragón
Millenium Dolc 2000	Vinyes i Cellers Clua
Ochoa 2001	Ochoa
Mirto 1999 (Errioxa)	Bodegas Ramón Bilbao
La Vicalanda 1997 (Errioxa)	Bodegas Bilbainas
Dom. de Berceo 2000 (Errioxa)	Bodegas Berceo
Palacio de Otazu 1997	Señorio de Otazu
R. de Ganuza 1998 (Ar. Errioxa)	F. Ramirez de Ganuza
Tres picos 2000	Borsao
Urbezo 1998	Solar de Urbezo
Vall-Llach 1999	Celler Vall-Llach
Vallobera Cazador 1997	San Pedro

Argi-ontzia

txokoa

Portu Zaharrari begira



Argi-ontzia txokoko kideetako batzuk

Izena: Argi-ontzia. **Helbidea:** Ereagako kaia 26. Portu Zaharra. **Bazkide kopurua:** 31 lagun hasi ziren 1977an eta berberek jarraitzen dute. Hildakoen lekuak betiko bazkideen semeek bete dituzte. **Presidentea:** Iñaki Orueta. **Historia:** Hasiera batean Algortako El Farol auzoan zabaldu zuten txokoa (handik datorkio izena), moja-komentuen erakuntza batean. Bi urte geroago 40 metro karratuko etxe bat erosi zuten Algortako Portu Zaharrean, obrak egin eta txoko bihurtu zuten. “*Taldean denetarik daukagu; igeltseroak, arotzak... Lan itzela egin genuen guztion artean eta mundu osoko txokorik ederrena altxatu genuen*” azaldu zigun presidenteak. **Sortzaileetako batzuk:** Jesús Cajigas, Santi Cajigas, Luis Gandara, Iñaki Orueta, Juan San Sebastián... (bazkide guztiak Algortako Portu Zaharreko semeak dira). **Emakumezkoak:** Hastapenetan emakumezkoek ezin ziren sartu, gaur egun senarrekin sar daitezke. m

Munduko marmitakorik handiena

Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen eskutik



Ibilaldi egunean marmitakoa prestatzen ibilitako lagun batzuk

Esan eta egin! Ibilaldian, Bizarra Lepoan elkarteko lagunek *Geuz-gaz jan* sukaldarien elkartearen laguntzarekin munduko marmitakorik handiena prestatu zuten Portu Zaharrean. Haizeak eta euriak arazo handiak eragin arren, sukaldariak ez ziren kikildu eta goizeko 8:30etan hasi ziren prestatuntzekin. Espero baino beranduago amaitu arren, munduko marmitakorik handienak ikusmin handia piztu zuen eta komunikabide ugari eta ehunka lagun hurbildu ziren lapiko erraldoiak zeuden tokiraino. Guztira 150 kilo hegaluze eta 400 kilo patata erabili ziren. Sukaldariak txalo zapa-rada handia jaso zuten. m

AUTOESKOLA

GETXO

Salsidu etorb. 48991 ALGORTA

Tf. 94 430 25

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ?GARATE AZURMENDI

Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 43

T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01

48990 NEGURI 87

I aki

Bitxitegia

Ω

OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte T: 4302345

Algorta

VILLABOTAS

JATETXEA

Menu merke eta bariatuak

Espezialitateen karta

Giro atsegina

T: 430 43 33

Villaondoeta 2, ALGORTA



Janedan

urdaitegi

Adituak gapernik berrikoak eta delicatessen produktuetan

Bidebieta, 4 behea Alangobarri 10

Tel. 94 676 58 79 Tel. 94 491 58 37

SOPELANA ALGORTA

KARLOS ARGUIÑANO > sukaldaria

“Nire platerrek maitasuna komu nikatzea nahi dut”



Karlos Arguiñano (argazkia, Josean Cantalapiedra)

“Gozo-gozoa” esaldia berak jarri zuen modan Euskal Telebistan bere saioa egiten hasi zenean. Lau neba-arrebetako nagusiena, 17 urterekin Karlos Arguiñano (Beasain, 1948) sukaldaritz eskolan hasi zen Luis Irizarren aginduetara eta 1978an bere jatetxe propioa zabaldu zuen Zarautzeko hondartzan. Bai Euskal Herrian eta baita mundu osoan ere, sukaldari oso ezaguna izateaz gain, Arguiñanok 3.500 sukaldaritz saio baino gehiago aurkeztu ditu telebista ezberdinetan eta hiru pelikulatan lan egin du. 54 urte ditu gaur egun, eta sasoi bete-betean dago.

—Txikitan zeure ama elbarrituari laguntzen zenion sukaldean. Handik datorkizu zaletasuna?

—Txikitan eta egoerak behartuta, lapiko artean ibili behar izan nuen ama eta anaientzat sukaldatzen. Baliteke nire zaletasun hortik etortzea baina, hala ere, betidanik gustatu izan zait kozinatzea.

—Luis Irizarrekin ikasi eta gero, izen handiko jatetxeetan lan egin duzu, besteak beste, Donostiako María Cristina eta Londres hoteletan. Non edo norekin ikasi duzu gehiago?

—Egia esan, Luisekin asko, baina asko, ikasi nuen. Gero, lanean, sukaldaritz eskolan beste ikasten dela esango nuke nik. Nire ustez, zazpi zortzi urte behar dira maila handiko sukaldaria izateko. Horietako hiru sukaldaritz eskolan eman behar dira eta besteak, lanean.

—Ospetsuak diren Ramón Roteta eta Pedro Subijanaekin ibilia zara. Zernolako harremana daukazu beraiekin eta orohar, beste euskal sukaldari handiekin?

—Ona, oso ona; ederra. Aipatu dizkidazun bi horiek gainera nirekin batera ikasi zuten eskolan. Sarritan bazkaltzeko elkartzen gara.

—Sukaldari askok sukaldaritz lanbide gogorra eta sakrifikatua dela esan digute. Iritzi berekoa zara?

—Jakina gogorra dela! Baina esaerak dioen moduan: gogozko tokian aldaparik ez! Gustatuz gero, lanbide hau ez beste edozein baino gogorragoa.

—Sukaldari izateaz gain film batzutan azaldu zara. Zer kontatu diezagukezu zure alderdi horri buruz?

—Orain dela bost urte Juanma Bajo Ulloa eta Karra Elejalde nigana etorri ziren eta euren proiektu batean paper bat egitea proposatu zidaten. Ideia gustatu zitzaidan, egin nuen proba ondo ateraz zen eta baietza eman nien. Proiektua *Airbag* izan zen eta arrakasta handia eduki zuen. Geroago *Año Mariano* filmean hartu nuen parte eta laster, beste ekoizpen berri batean agertuko naiz. Sukaldaria naizen arren, zinea ere izugarri gustatzen zait, eta ahal den neurrian, bide honetatik jarraitzeko asmoa daukat.

—Sukaldaritzara bueltatuz, zer da lanbide honek daukan txarrena eta onena?

—Txarrena zer den esatea... hobeto ez aipatzea. Onena zer den esatea, berriz, errazagoa da. Bezeroek, ordaindu ondoren, gustura jan dutela eta bueltatuko direla esaten didaten bakoitzean, neke guztiak ahazten dira eta egindako ahalegin guztiek

merezi izan dutela dutela ohartzen da bat.

—Euskal Herriaz gain, non gehiago jaten da ondo?

—Hemen inon baino hobeto jaten da, baina herri bakoitzak baditu bere berezitasun eta osagai propioak; Italian adibidez, maisu dira pastarekin; Argentinan daukaten okela munduko gozoena da... Edo non aurki daiteke gauza gozorik, eta osagai onik ez dagoen herrietan ere, daukaten apurrarekin aurrera txukun ateratzeko konpontzen dira. Orain dela gutxi Saharan egon nintzen. Hondarra eta harriak besterik ez zen ikusten han. Belarrik ez, janaria prestatzeko osagairik ez... Bizitza ezinezkoa zela pentsa liteke, baina hangoek gozo jateko modua aurkitzen dute.

—Komunikazio gizona zara (telebista, zinea, irratia...). Zer komunikatzen du zure platerrek?

—Maitasun handiarekin egiten ditut eta hori komunikatu nahi izaten dut; jendeak ardura handiarekin eginak daudela jakin dezala.

—Zer prestatuko zenuke norbait janarekin konkistatu ahal izateko?

—Ez da gauza handirik egin behar. Sukaldean ikusten gaituztenean, amantala aldean eta sukaldari jantzita, emakumezkoak liluratu egiten dira. Bazkari sinple baina on bat prestatu, eta bidearen erdia egina du batek. Ez du bazkari landuegia izan behar, baina nabaritu behar da maitasun handiarekin egina dela. Bestela, ez dago inor konkistatzerik. m

“Zazpi-zortzi urte behar dira maila handiko sukaldaria izateko. Horietako hiru sukaldaritz eskolan eman behar dira eta besteak lan egiten”

“Sukaldean, amantala aldean eta sukaldari jantzita ikusten gaituztenean, emakumezkoak liluratu egiten dira”

A Arasa
Sukalde eta Komunetarako Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa
SARRIKOBASO, 44 • Tel/Fax: 94 430 11 91 • 48990 Algorta

EREAGA
Bidaiak
Autobusak
T: 94 453 08 16 - 609 405 988
GETXO

GOIZEAN
Gozoki eta prentsa, gutxi denik
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak -
Ordu a Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

GAVRKO
GIZONENTZA -
KO MODA
Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA HARTU TXANDA


BEROGAILU ETA ITUR -
T: 430 53
HIRURAK
Sarrikobaso 15

Algortako begetarianoa janari alternatiboa

Zerbait ezberdina dastatu nahi duenak badauka nora joan, 1997ko udan ateak zabaldu zituen *Armonia y Salud* jatetxe begetarianora hain zuzen ere. Ardo berezi ugarietz gain, Algortako jatetxe honetan bazkari bereziak ere dastatu daitezke, beti ere begetarianoak: entsaladak, pasta, arroz integrala, produktu biologikoak... Etxeko espezialitateak barren-gorriak rokefort erara eta barazkiez betetako krepak dira. “*Bezero berriei bi plater horiek gomendatzen dizkiegu beti*” azaldu zigun Javier Calzadak, jatetxeko jabeetako batek. Besteak

Mónica Casla eta Mari Carmen Prieto dira. Algortako begetarianoan eguneko menuak 8,10 euro balio du eta 18 euroren truke menu berezi tentagarria jan daiteke. Jantokia txikitxoa eman dezakeen arren, 40 lagun sartzen dira bertan eta asteburuetan sarritan betetzen da. “*Bezero finko asko ditugu; gehienak lagun taldeak eta bikote gazteak*”, argitu zigun Javierrek. m

ARMONIA Y SALUD
Algortako Etorbidea 100 (Batzokiaren ondoan)
Menua: 8,10 euro / Menu berezia: 18 euro
Igandeetan itxita
Erreserbak: 94 460 17 62



Argazkian Javier Calzada eta Mari Carmen Prieto

barrak



Jon Martinez, Morrongo tabernako jabea

Morrongo

Algortako betiko taberna bat

Taberna ezagun eta mitikoak badaude Algortan; Morrongo taberna horietako bat da. Orain dela 35 urte zabaldu zituen ateak herriko postetxearen aurrean dagoen txoko klasiko honek. “Izena aitzak zeukan ezizenetik dator-kio tabernari” azaldu zigun jabea den Jon Martinezek. Morrongo sukaldari 30 pintxo mota ezberdin prestatzen dituzte egunero Mari Angeles Esteban eta Eli Martinez sukaldari trebeek; tortila pintxoak, txakadunak,

sandwichak..., mota guztietako pintxoek tabernako barra luzea dotore janzten dute astegun zein jaiegune-tan. “Arrakastatsuenak, zalantza barik, tortila pintxoak dira” azaldu zigun Jonek; “landuenak ez diren arren (bereziagoak ere badituzte), hemen gehien saltzen direnak betikoak dira, hau da, klasikoak”.

MORRONGO TABERNA
Torrene kalea z/g, Algorta
Telefonoa: 94 460 50 42

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?
herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!
Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Erosketa etxera eroaten dogu!!

Ugari
supermerkatua
ORDUTEGIA
Lan egun eta zapatuetan: 9:00-14:00 / 17:30-21:00
Domeka eta jai egunetan: 9:00-14:30
Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

udondo
taberna
zatoz!
Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

uk

●

zure **dirulaguntza**
behar-beharrezkoa
dugu!!!

●

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

●

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo
aldizkaria@euskalnet.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

irabazi bi lagunentzako menu bat GARDOKI Jatetxean



Nor da?

- **Lizarran jaio zen 1955ean**
- **1973tik Algortan bizi da**
- **Euskaraz idazten du**
- **Berak idatziak dira, besteak beste “Bai... baina ez” edo “Ilusioaren ordaina”**

> Aurrekoaren erantzuna: Bernardo Atxaga

> Irabazlea: **Laura Pinto* (Gorliz)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
aldizkaria@euskalnet.net / faxa: 94 491 58 31

Gardoki
Jatetxea



Mendieta kalea 47
Sopela
Telf. erreserbak: 94 676 07 61
astelehenetan itxita

68 UK

UK 69

Errotalde

ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA?MARI?GETXO

ITXASGANE

prentsa ¥ aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA

Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21

ALGORTA • GETXO

BATIZKRISTALDEGIA

¥ BIDRIERAK

¥ GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN

¥ EPILUERRALDOIAK

¥ INSTALAZIO OROKORRAK

Illeta z/g (Sarrikbasoerikin bat)

T:94 430 69 42 /ALGORTA

CALENDOS

RIKI

UMEAK - GAZTEAK

Kale Nagusia 30 - T: 4645543



TXIBERRI

edantokia

frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

T: 94 676 07 15

[horoskopoa]

URA

(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Beti iniziatiba zuk izan behar duzula uste duzu eta honela, ekintzen erantzunkizuna zure gain gelditzen da. Ikasi beharko zenuke besteak ere erabakiak hartzeko gai direla eta horrela arazo gutxiago izango duzu.

AITZURRA

(Martxoak 21 apirilak 19)
Zure iritzia aldatzea ez da lan makala. Gauza eta pertsona ugariet buruz dituzun kontzeptuek aurritizietan dute sustraia. Honek pertsona asko ezagutzeko aukera galtzea ekarri ditu.

GARIA

(Ekainak 19 uztailak 18)
Bizitzan gauza gogorrak gertatzen direla ezin da ukatu, baina zu edozer gauza ikusita ere segituan hunkitzen zara. Bigunegi duzu bihotza eta horrek, aldatu ezean, arazo asko eragingo dizkizu.

META

(Irailak 17 urriak 16)
Familia adiskidetzeko egiten dituzun ahaleginek bere fruitua emango dute, baina ez zuk espero zenuen bezala. Izan ere, egoerak okerrera egingo du eta dena pikutara bidali nahi izango duzu. Ez dago irtenbiderik, eutsi goiar!

OTSOA

(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Konfiantza gehiegi duzu pertsonengan eta maiz gertatu zaizu huts egin dizutela. Lagun batzuentzat interes propioak edozein adiskideren aurretik daude. Benetako lagunak zeintzuk diren ikusi beharko zenuke.

HOSTOA

(Apirilak 20 maiatzak 19)
Aspalditik desio duzun gauza hori oparitu beharko zenioke zeure buruari. Zergatik ez? Egin duzun lan gogorra besteek ez badute baloratzen, ez arduratu! Ez duzu besteen onarpena behar.

LASTOA

(Uztailak 19 abuztuak 17)
Noiz lasaituko zara? Gero eta urduriago zabilzta eta zure osasunak jasango ditu honen ondorioak. Naturarekin harremanetan jartzea komeni zaizu, aire fresko eta garbia arnastu lagun!

HAZIA

(Urriak 17 azaroak 15)
Hamaika ikusteko jaiak gara, baina zurea gehiegizkoa da. Joera duzu denek zentzugabe ikusten dituzten gauzak egitera, baina zure burua errealizatu sentituko duzu, diotenak ez dizu kalterik ekarriko.

ADARRA

(Otsailak 19 martxoak 20)
Txutxu-mutxuka ibiltzea gustukoa duzula badakigu denok. Inoiz gainontzekoen bizitzan muturra sartzeak bere kalteordaina ekarriko ditu. Oso garai ona da bidaizteko, ideia berriekin etorriko zara eta.

EGUZKIA

(Maiatzak 20 ekainak 18)
Hemendik hara, handik hona. Geldituko ote zara behingoz? Ia ahaztu duzu zein den zure etxea. Hainbeste egun eta gau etxetik kanpo, zeure ingurukoak arduratuak dituzu. Beraz, hobe zenuke zure ihesaldien zergatien berri ematea.

IRATZEA

(Abuztuak 18 irailak 16)
Bakardadea izango da zure lagunik fidelena, besteekiko erakusten duzun koraza horrek kalte izugarria egiten dizun bitartean. Egoera hau gainditzen laguntzeko ahaleginetan dabilzta maite zaituzten pertsonak.

NEGUA

(Azaroak 16 abenduak 20)
Zure sentimenduak baztertzen saiatzea zilegi da, baina ez zaitu inora eramango. Ohartuko zara denborak aurrera egin ahala. Osasunak mugimendu pixka bat eskatzen dizu ozenki eta hara! Zu ezentzunarena egiten!

Lur planeta. Lurreratzen.

Bitakora koadernoan: besoa lokartzen ari zait, ez da batere eroso bere zurrungek ez didate argi pentsatzen uzten-eta... eta ohartu naiz: lehenengoz zoriontsu lagundu! Hiria gauez zoragarria da, nire konpainia bezala, kaleak bera ileetatik tiraka arrastaka daramadan edertasun ile horidun bat. Nire lehenengo nobia da. Beno, ez da guztiz egia... Laugarren mailan neskalagun bat izan nuen baina hura ez dut kontuan hartzen, biok asmatikoak ginen eta elkarri egiten genion gauza bakararra telenoz arnastutia egitea zen.

AAHH, LAGUNDU, ASKA NAZAZU! Hitz gozoak... nire






...eta pixontxiez armaturik leihotara gure maiatsun agerraldia ikustera balkoietara azaldu diren auzokide guztien belarrientzat. Pix ibaiak nire gainean erori dira. Jaungoikoari eskerrak eman dizkiot bizirik irauteagatik. HORI, ASKA EZAZU NESKA... ERNESTO NEIRADihukatzen dute etengabe, eta ez dakit nola, nire umaroa datorkit gogora, eta nire aita, bide batez alu hutsa zena. Nire a konplexu asko zituen gizona zen, batez ere bere sudurrek ile luzeek eragin zizkiotenak, jendeak haiek txarto ebak

Oso krudela zen eta jo egiten ninduen. Eta aita guztiek ez bezala, gerrikoaren belarriarekin jo beharrean hila den bere amaren faxa batekin jipoitzen ninduen. Hori askoz ere umiliagarriagoa zen. Biharamunean eskolan lagunek orbain ederrak harro erakusten zituztenean, nik botoi batzuen arrastoa baino ezin nuen erakutsi, eta izugarri lotsatzen nintzen. Gau batean galtzerdi bat ezkutatu zuen nire almohadaren azpian eta hori erabatekoa izan zen. Berari aurre





Tratu psikologiko txar hauek guztiak nire inkontzientean iltzaturik geratu dira, hain zuzen ere, hipotalamoan... Baina, baina zer espero daiteke nire planetaz, jendea agurtzeko muxu bi eman beharrean, elkarri zaplasteko bi ematen dizkioten planetaz? Argazki kameraren flashak atzera ekarri nau errealitatera. Morroi batzuk akatzen ari dira eta nire neskalaguna korrika joan da. Laguntza eske joango da, zoragarria da



Txuleta jaleak 1975

1975eko Algortako jaietan, herriko lagun taldeek antolatutako Txuleta Jaleen Txapelketan hartutako irudiak dituzue hauek. Era honetako txapelketak, gaur egun ospatzen ez badira ere, herrietako jai gehienetan egiten ziren. Argazkietan ikusten denak Algortako San Nikolas plazara lagun asko erakarri zituen. Gaur egun inork ez du gogoratzen norena izan zen txapelketa hau antolatzeko ideia, ezta nork irabazi zuen ere, baina partehartzaileen satisfakzio aurpegiak baino ez dira begiratu behar, oso arrakasta handia eduki zuela jakireko. ^m

Argazkiak: **Kepa Urkitza**

cianoplan s.a.

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91
<http://www.cianoplan.es>

global printers

- Inprimatze eta plano kopia.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopia kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.



Carlos Aiestaran

Getxo futbol taldea 1937

Aurretik Getxo futbol taldea bere 75. urteurrena ospatzen ari da eta horregatik argazki zahar hau ekarri nahi izan dugu gure orrialde honetara. Athletic Clubek 1937ko azaroan antolatutako futbol lehiaketa amateurrean parte hartutako Algortako SEU de Guecho futbol taldeko kideak dira argazkian azaltzen direnak. Parte hartu zuten Bizkaiko 39 taldeetatik 4. postuan geratu zen. Atezaina (José M^a Echevarría Ayestarán), Athletic-eko atezain titularra izan zen 1939tik 1942ra bitartean, denboraldi berean Espainiako Futbol Selektzioa atezain titularra/ordezkoa eta 1940-41 denboraldian oraingo Zamora Trofeoaren baliokidarean irabazlea. Horrezaz gain, Athletic Club-arekin 1942-43 denboraldian Liga eta Kopa irabazi zituen.

Argazkia Cruce Verde futbol zelaian eginda dago.

Erreferentziak: Saldaña, Pérez, Bastida, Basarate, Echevarría, Valentín Ponposo, Iñaki Elorriaga, Julián Arrieta, Julio Mugarra, Domingo Menchaca eta Antón Bengoechea.

KONTXU ODRIUZOLA > Aktoresa

“Nire ilobek amama deitzen zoratu egiten naiz”



Zure izaera definitzen duen ezaugarriren bat... Langilea, norberak esatea gaizki badago ere. Hobe esanda, lanean ohitutakoa.

Zein da zure akats edo maniarik nabarmenena?

Nire lanbidean zehatza, gehiegizko nahia. Ah! Eta puntualitatea!

Maiz errepikatzen zaizun ametsa... Lana bukatu ezinik ibiltzen naizela, oztopoz beteriko lan eguna da nire ametsgaiztoa.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat... Lagunekin mendian eta kalean gustura, antzerkiak egiten eta igandeko zinemaldiak gogoratzen ditut maitekiro.

Zein da gehien miresten duzun pertsona? Lan eredu bezala Ingrid Bergman, eta bizitza pertsonalean familia eta lagunak.

Zer da pertsona batengan gehien baloratzen duzuna?

Hitzeko izatea, faltsua ez izatea. Ez naiz fida haserretzen ez den pertsonaz edo suabe hitz egiten duen horretaz.

Zer da jarraitzaile batek esan dizun gauzarik ederrena? Bizitza poztien diezula eta zu ikusteko zain dituzula entzutea ikaragarria da.

Zein komentariok egin dizu kalte gehien? Lanbide honetan gezur asko ibiltzen da eta gutxi garenez elkarri gaizki esaka ibiltzea zentzugabea da.

Zein da zure libururik gogokoena? Nire lanak ez dit irakurtzeko denbora gehiegirik uzten, horregatik oporrak noiz iritsiko egoten naiz. Baina beti daramat libururen bat nire eskuko poltsan. Orain irakurtzen ari naizen liburua Extremadurako lagun batek idatzitako ipuin laburrak dira: *La narración corta en Extremadura*.

Abestirik gustukoena? Animu egoeraren arabera. Celine Dion, boleroak, zeltiar abestiak eta bereziki, Mikel Laboa.

Eta film bat? Askok: *Memorias de África*, *Cantando bajo la lluvia*...

Zein lema eginen zenuke zeurea? Lan egin bizitzeko, ez bizi lan egiteko, ahal bada behintzat.

Zertan edo norengan sinesten duzu? Familiarengan. Zuk maite dituzunak zu maite zaituztela jakitean.

Zerbaitekin damutzen zara? Antzerkigile ospetsu batek zioenez, “bizitza antzerki obra da, entsaiatu ezin dena, egin egin behar da”.

Zerk ematen dizu beldurra? Gogorra da maite ditudanak sufritzen ikustea. Baina badakit denok sufritu behar badugu ere, bizitza laburra dela eta bizi beharra dago.

Nork edo zerk egiten zaitu zoriontsu? Momentu honetan nire ilobek, bi mutil ditut. Amama deitzen didatenean zoratu egiten naiz! Oso momentu politetan nago. m

KONTXU ODRIUZOLA—. Kontxu ala Maria Luisa. Maria Luisa ala Kontxu. Argi gelditzen da Kontxuk bederatzi urtez *Goenkale* saioan egin duen pertsonaiekin zerikusi handirik ez duela. Azpetiar honek irakasle izateko ikasketak burutu zituen eta hamazpi urtez Gipuzkoako hainbat ikastolatan lan egin zuen. Hiru haurren ama zelarik interpretazioa ikasten hasi zen. *Ama begira zazu* antzezlanean eta Andu Lertxundik zuzenduriko *Hamaseigarrenean aidanez* filmean ikusteko aukera izan dugu. Emakume langilea dela ez dago ukatzerik, baina ezin dugu ahaztu amona paregabea ere badela!